


ARGIA

KURDISTAN

Öcalanen mezua: bakea oraingoan bai?

26-31. orrialdeak



#2.910 | 2025 / 03 / 23 | 4 €

0,29,10
9 1778402 139093



**"Francok 1943an
askatu zuen Aking
Chan brigadista"**

16 | HWEI-RU TSOU



**"Etnografian, objektuek
jende xumeaz hitz
egiten digute"**

32 | MAITE ERRARTE



**"Gorputza
berrumanizatzeko
balio du dantzak"**

46 | NAGORE TAMAYO



DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #305
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA

ESPAINIAKO GUARDIA ZIBILAREN HISTORIA BAT

HEMENDIK ALDE
EGITEKO ARRAZOIAK

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 21 | JESÚS RODRÍGUEZ
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | MAIALEN ARTEAGA
- 23 | UXUE APAOLAZA
- 24 | ZIGOR ETXABURUA

Finkoak

- 40 | KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



AZALEKO ARGAZKIA: KURDISHSTRUGGLE CC-BY 2.0

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

46 | NAGORE TAMAYO DANTZARIA

Dantzak arte moduan egiten duen ekarpenaz mintzatu da Maddi Sarasuarekin, eta egungo jokoa-arauek nola ekarri duten "edukiz hustea", mezu erraz eta axalekoak ugaritzea: dantza emanaldiak ikustera joan eta "ezer" sentitu gabe ateratu izan delako atsekabetu da.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Zuhaitz landaketa: mozketak masiboak egin ahal izateko jukutria "berdea"

Jenofa Berhokoirgoien

16 | PERTSONAIA | HWEI-RU-TSOU

"Batera gogoratzen ditugu Gaza eta Gernika"

Miel A. Elustondo

26 | NAZIOARTEA

Öcalanen mezua eta PKK-ren desagitea

Karlos Zurutuza

32 | GIZARTEA | MAITE ERRARTE

"Etorkizuneko etnografoek sakelekoen bilakaera aztertuko dute akaso"

Josu Narbarte

36 | KOMUNIKAZIOA | BIZI BARATZEA ORRIA

ARGIAk abiatu duen aldizkari berria, Bizi Baratzea proiektuaren 10. urteurrenean

Estitxu Eizagirre

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Manex Moreno, Mikel García, Onintza Irureta, Unai Lomana, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Lander Gonzalez, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan egin bezala.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



Ekodizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA



OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara



Toz, toz!

Jubilatuen martxa batek ez zuen inoiz halako eraginik izan, eta martxoaren 12koa zapaltzea erabakia zuen gobernuak. Hala, protesta hasi baino ordu eta erdi lehenago, Polizia Federalari manifestarien kontra egiteko agindu zion. Deialdi masibo eta zabala zen: ehun bat erakunde, artistak, futbolzale taldeak, sindikatuak... Denak murrizketen, langileen kaleratzeen, hezkuntzaren, zientziaren eta osasun publikoari emandako kolpeen kontra. Biralda egin den eszena batek islatzen du hobekien erantzun ofiziala: Poliziaren ur kanoidun tanketa batek, manifestariak jazarri bitartean, ondokoa zioen bozgorailuetatik: "¡Vengan zurdos!" (Zatozte ezkertiarrak!). Javier Mileiren esaldi gogokoenetako bat da, desberdin pentsatzen duenarekiko nagusikeria eta gorrotoa adierazteko. Zenbat eta txiroagoa eta (azalez) marroiagoa izan, hobe. Oraingoz erregimenak eusten dio, inflazioa jaisteak eragiten duen egonkortasun-sentsazioagatik, ekoizpen-sarea suntsitzearen kontura. Horren ondorioak epe ertain eta luzean ikusiko ditugu. Momentuz, oposizio politiko instituzionalaren ezintasunaren gainetik, kaleek aurrea hartu dute atzera ere.



GALEko 18 biktimak Barrionuevoren aurkako kereila jarri dute

ERREDAKZIOA

GALEko biktima talde batek eman du kereilaren nondik norakoen berri Bilbon egindako prentsaurrekoan, Egiari Zor fundazioak eta Giza Eskubideen Euskal Herriko Behatokiak lagunduta. GALen aurkako eta, zehazki, Espainiako Barne ministro ohi José Barrionuevoren aurkako kereila aurkeztuko dute.

Biktimen izenean aritu dira Edurne Brouard -1984n GALEk hil zuen Santi Brouarden alaba- eta Bego Galdeano -1985ean GALEk hildako Xabier Galdeanoren alaba-. Zehaztu dute orain arte Espainiako justiziak ez duela ezer egin bere aldetik GAL taldea auzitegiatan ikertzeko, horretarako aukera eta arrazoi ugari izan badu ere, eta hortaz ekimena hartzea erabaki dutela.

Oscar Sánchez eta Maddi Bilbao abokatuek azaldu dituzte Espainiako Auzitegi Nazionalean jarriko duten kereilaren nondik norakoak.

GAL

1980ko hamarraldian jardun zuen, zehazki 1983tik 1987ra arte. Guztira 27 hilketa leporatzen zaizkio. Kasu honetan, nagusiki Ipar Euskal Herrian izandako jardueragatik bideratuko da kereila, agerraldian zehaztu dutenez. Salatu dute garai hartan Frantziak 176 errefuxiatu utzi zituela Espainiako agintarien esku eta beste 74 deportatu zituela Amerikako eta Afrikako hainbat herrialdetara. Gizateriaren aurkako delitu gisa aurkeztu dituzte GALen hilketak eta, beraz, azpimarratu dute ez dutela preskribitzen.

BARRIONUEVO

GALen aurretik bestelako talde parapolizialak ere izan ziren Euskal Herrian eta giza eskubide ugari urratu zituzten. Kasu honetan, dena den, José Barrionuevo Espainiako Barne ministro zenaren aurkako kereila bideratuko dute, delituak hark zuzenean egin dituelakoan, partikularrek lagunduta, eta estatu aparatuen laguntza eta babesarekin. 1998an Espainiako Auzitegi Gorenak Segundo Marey-ren



EGIARI ZOR FUNDAZIOA

“Egiak ez du preskribitzen, ezta minak ere. Barrionuevok, beste batzuek bezala, kontatu duena baino gehiago daki

bahiketagatik zigortu zuen Barrionuevo -hamar urteko espetxe zigorra-, beste hamaika polizia eta PSOEko kargu politikorekin batera. PPko José María Aznarren gobernuak, dena den, indultua eman zion eta hiru hilabete besterik ez zituen egin espetxean.

FROGAK

Abokatuek adierazi dute kereila aurkezteko frogua ugari dituztela, besteak beste Barrionuevok berak zigorgabetasun guztiarekin hedabideei hainbatean esandakoak. Oso ospetsua izan zen 2022an *El País*-i eman zion elkarrizketa, non aitortu zuen berak agindu zuela José María Larretxea errefuxiatuaren bahiketa saioa: “Nik hori nire gain

hartu nuen, adierazi nuen nik agindu nuela, eta ez zen inongo ondoriorik egon, auzitegiek ez zuten deus egin...”. Atentatu horietan parte hartzen zutenei buruz zera zioen: “Lubaki beretik tiro egiten zuten lagunak”. “Egiak ez du preskribitzen -diote GALen biktimek-, ezta minak ere. Barrionuevok, beste batzuek bezala, kontatu duena baino gehiago daki. Espero dugu hau aukera bat izatea auzitegi batek inork bere gain hartu ez dituen erantzukizunak ezarri eta adierazi ahal izateko”.

KEREILA GEHIAGO

Agus Hernan Giza Eskubideen Euskal Herriko Behatokiako koordinatzaileak agerraldian adierazi duenez, orain arte estatua bera arduratu da estatutik egindako delituak estaltzen, eta horrek zigorgabetasuna ekartzeaz gain, biktimak birbiktimizatzen ditu. Azaldu duenez, Behatokiak azken hilabeteetan beste bi kereila ere jarri ditu, bata Josu Mujikaren hilketagatik eta bestea Txomin Letamendiren kasuagatik. Mujika Poliziak hil zuen Madrilen 1975ean eta Letamendi 1950ean hil zen, atxiloketan izandako torturek eragindako ondorioengatik. ●

Black lives matter



JUNE FERNANDEZ

Hurrengo ariketa egin ezazu zure lantokian, euskaltegian edo gimnasioan:

Altza eskua Minneapoliseko George Floyd nor den dakizuenok.

Altza eskua Madrilgo Mame Mbaye nor den dakizuenok.

Altza eskua Barakaldoko X nor den dakizuenok.

Mame Mbaye mantero duela zazpi urte zendu zen Lavapiesen, bihotzekoa emanda, poliziaren jazarpenetik ihes zebilela.

X ez da hil, baina zorian egon zen eta anputazioak egin behar izan dizkiote. 2024ko martxoaren 21ean, Arrazakeriaren kontrako nazioarteko egunean, hain zuzen ere, Barakaldoko udaltzaingoak tiro egin zion hari eta beste bi mutil migratu arrazializaturi, etxe zuten tuneletik bota nahian. Eraso horren lehenengo urteurrenean prentsaurrekoa eta kontzentrazioa deitu ditu Bizkaiako SOS Arrazakeriak.

Euskal Herriko mugimendu antiarrazistak behin eta berriro salatu du honako joera: "Poliziaren basakeria arrazista" esapideak Estatu Batuetako auzoetara edo Mexikoko mugara garamatza, eta ez gure Sanfranera, Lavapiesera, Hendaiaiko mugara, atzerriarrentzako zentroetara.

Hiru hipotesik azaldu dezakete joera:

- 1- Lastoa besteren begian ikusten dugu errazago.
- 2- Ikuskizunaren gizaratean, Hollywoodeko zantzua dituen irudi batek erakarpen indar handiagoa dauka gure inguruko miseriek baino.

3- Euskal Herriko hedabide hegemoniko eta ofizialek Estatu Batuetako Black lives matter manifestazioen berri ematen dute, gurean udaltzainen bertasioak zilegiztatzen dituzten bitartean.

George Floyd indarkeria arrazistaren martiritzat duen gizaratean, X gizon biolentoa da eta udaltzainak haren biktimak. Zehazki, Barakaldoko PSEk orduan zabaldu zuen komunikatuan poliziei eskertu zion "haien lana eta profesionaltasuna Barakaldoko herritarren askatasunaren eta segurtasunaren defentsan". "Agenteek arauzko armarekin aurre egin zioten erasoari, bizia arriskuan zegoelako". Hara, autodefentsa estrategia eskasak ikasten dituzte akademian, pistola bada labana baten mehatxuari erantzuteko baliabide bakarra. Bost ziren polizia gixajoak, hiru etorkin arriskutsuen kontra.

Bestalde, "*Moros negros fuera*" pintaketa agertu da Sanfranen, mezkita baten ondoan. Bilboko polizia gehien dituen auzoan. Ez dute ezabatu.

Euskal oasian gertatzen da, baita ere gure agintariek X eta bere lagunei herritar estatusa ukatzea. ●



ADUR

Hirien jana



ULA IRURETAGOIENA

2020. urteko udaberrian lorategi-gintzak eta ortugintzak hartutako balioa gogoan, aisialdi aktibitate eta ingurune naturalarekin lotura gisa. Terraza eta etxeko loreontzietan hasitako ekintzak hiriko ortuen nekazaritzan jarraitu du, behin itxialdia bareturik. Historian zehar bizitako beste krisialdi, gerrate edo izurrite garaietan bezala, hiriko nekazaritzak goraldia du garai hauetan. Baratze-guneak, elikagai freskoak emateaz gain, espazio erlazional-afektibo bezala funtzionatzen du, eta biek osatzen dute aktibitate bakarrean bizirauteko potentziala.

Hiriek betidanik jan dute ingurune gertuko lurraldeetatik. Hiriaren zabal-kuntza aukera elikadura sistemaren gaitasunak baldintzatu izan du inkluso. Hiriaren eta janariaren arteko idilioaren apurtzea berria da eta elikadura industrialak egin du posible. Gure eguneroko menuaren elikagaien %90a kilometro askora dauden landetatik garraiatua izatea eta elikagaien %70a nazioarteko enpresa gutxi batzuen eskuetan egotea egoera garaikidearen datuak dira.

Teorian, 2020ko udaberriak markatu du hirien ondorengo plan estrategikoa, eta agenda 21, eko-auzoak, emisio mugatuko zonaldeak, espazio gogorren birnaturalizazioak egin dira. Baina ikuspegi kritikoaekin begiratu, ez dira inbestitze nahikoak hiri-ereduaren aldatetarako, ekintza isolatuak, oraingoz eskasak eta alor sektorialetatik datoze-lako. Deskarbonizazioranzko hiriek derrigorrez begiratu beharko diote gertuko lehen sektorearekin duten harremanari eta hirien berdetze programek egituratu beharko dituzte gainontzeko politikak.

2020an egin genuen bezala, goazen utopia posible bat adostera: hiriko inbestitzeak turismora jarri beharrean, agroekologiaren oinarriekin egindako hiri-nekazaritzara begira jar daitezten periurbanoak, industrializazio berdea birdefinitu dadila erregai fosilik gabe ekoizteko, eta aktibitate komunitarioen indarberritzea bultzatuz zaintza lanen eginkizunak bizitzaren parte barnertuak izan daitezela. ●



Aranon martxoaren 15ean, Urumeako Mendiak Askek antolatutako egun-pasan.

"Paradisu zineman ikusiko gara...", haizeari puzka ari beharrean

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Aranon *Vidas irrenovables* dokumentala ikusteko bete zen eliza martxoaren 15ean. Filmaren egile Francisco Vaquerok eskerrak eman zizkion bertako udalari, nabarmenduz Espainiako Estatuan orain artean egin dituzten 180 inguru emanaldietatik dozena batera ez direla iritsiko udalek antolatu dituztenak. Herriaren paisaian eta herritarren bizimoduan eragin handia izango duen horrelako proiektu bat (edo batzuk!) bere lurretan iragarri dizkieten udalak berak bultzatu beharko luke herritarren artean deliberazio prozesu bat, ikuspegi anitzak eta informazio osoa emanda. Sentipen horrekin ateratzen da herritarra dokumental emanalditik: "Hau gure herrira ekarri behar dugu, jendeak ikusi egin behar du". Hona hurrengo aukerak: apirilaren 3an Donostiako Trueba zineman izango dira filma eta egilea (bigarren aldiz!); apirilaren 7an Iruñeko Golem zinema, Ekozinema jaialdiaren baitan; apirilaren 9an Usurbilen eta 10ean Ordizian.

"Filma interneten balego, jendeari erakusteko..." komentatu izan didate askok. Aranon sentitu nuen filmaren indarra justu interneten ez egotea dela, horrek dakarrelako emanaldira joatea, herrikideen ondoan esertzea eta komunitatean ikustea. Egoera horrek berak sortzen ditu gaiaren angelu anitzi buruzko elkarriketak eta hausnarketa partekatutak.

Badu garza eta piperra hizketan Vaquerok eta emanaldiaren aurretik egiten duen sarreran eta ondoren sortzen diren galdera-erantzunetan ahobizarrak gabe mintzo da. Hala esan zuen, makroproiektu kaltegarriak asko eta aspalditik erakitzen dituztela bazter guztietan, baina honako hauek kostatzen dela jendeak dudan jartzea, "oso paper politean ongi bilduta eta lazo eta guzti" aurkezten dizkigutelako: berdea, jasangarria, ingurumenaren aldekoa... "Lurraldearen lapurreta" egiten ari direnak "betiko otsoak, beste larru batzuz jantziak" direla esan zuen eta lapurrak uxatzeko modu onena zarata ateratzea dela: "Askotan, herritarrek zarata ateratzen badute euren kasa joaten dira, lurralde osoa dutelako haien eskura eta diskurtsoa erortzea baino nahiago dute hurrengo mendi-lerro mugitu eta kito". Zarata ateratzeko hitzordu bateratu bat badela oroitarazi zuen: martxoaren 22an, Gasteizen, 18:00etan Bilbo Plazatik hasita eta Euskal Herria Bizirik-ek antolatuta. ●

28

urteko espetxealdiaren ostean kalean da Juan Luis Agirre Lete astigartarra, zigorra osorik beteta. Espainiako Auzitegi Nazionalak otsailean inputatu zuen ETaren zuzendaritzako ustezko beste lau kideekin batera, Gregorio Ordoñezen hilketa leporatuta.



%155

arma astun gehiago inportatzen ditu Europak, duela 5 urteko inportazioekin alderatuta. Europak erosi dituen armen erdiak baino gehiagok jatorri estatubatuarra dute.

4.200

euro gehiago urtean, gutxienez. Hori da Ertzainei ordaintzea adostu duena Eusko Jaurlaritzak, ERNE, ESAN eta SIPE sindikatuekin akordioa eginda. Espainiako Estatu osoan ondoen ordaindutako Polizia izango da.

“Euskaldunontzat zein euskararentzat benetako justizia aldarrikatzeko unea da”

INTZA GURRUTXAGA ETA GORKA TORRE

EHEko bi kideak apirilaren 11n epaituko dituzte eta 25 bat eragilek elkartzuna adierazi diete. Apirilaren 6an, manifestazioa egingo dute Baionan.

2025-03-13



“GURUTZETAKO OSPITALEKO LARRIALDIAK KOLAPSOAREN ERTZEAN DAUDE”

ESK SINDIKATUA

Barakaldoko ospitaleko larrialdi zerbitzuan sufritzen ari diren “saturazioa larria” dela ohartarazi du sindikatuak.

2025-03-10

“Elikagaiak hemen ekoiztuak izateaz gain, elikagaien ziklo guztiaren gaineko erabakimena ere herriaren eskuetara egotea da helburua”



ERRIGORA

“Beste modura, denona de onura” lelopean, Martxoaren 10etik 26ra izango da Errigoraren udaberriko kanpaina.

2025-03-10

Techbro go home



DIANA FRANCO EGUREN

Aspaldi pertsona oso zatar bat eza-gatu nuen, urrun izatea komeni den pertsona horietako bat. Bere genero bereko pertsonengana zuzentzeko, gizonezkoengana, “bro” hitza erabili ohi zuen. Edozein zapaltzeko prest zegoen, bere helburuak lortzeko. Garai hartatik hitz horri halako higuina hartu nion. *Bro* ingelesezko *brother* (anaia) hitzetik dator. Berba horren erabilera AEBetako anaiarte unibertsitarioetan zabaldu omen zen. Espresio horretatik eratorritako ‘techbro’ berba entzuten eta irakurtzen ari naiz hainbat lekutan. Hitz horren bidez, teknologien industrian kultura edo mundu ikuskera bat definitzen da, non hiperlehiakortasuna eta maskulinitatea gorai patzen diren eta planetako gehien goaren (gizakien zein bestelako bizidunen) bizitzaren sostengurako beharrak mespretxatzen diren, negozio eredu zapaltzaileek mugarik gabeko hazkundean etekinak sortzeko bidean. Lowtechmagazine.com webgunean diotenez, egun dugun digitalizazio ereduak (techbro-en negozio zapaltzaileen kulturak sustatua) dituen energia beharren hazkundea ez da amaituko baliabide energetikoak agortu arte, edota erregularizatu arte. Azkenaldian, gainera, techbro kulturak aniztasunarekiko duen jokabide baztertzailerak arreta piztu du. Oraindik techbro-ak nortzuk diren argi ez baduzu, hona hemen oso ezagunak diren batzuk, Donald Trump lehendakari izendatu zuten urtarrileko protagonistak: Mark Zuckerberg (Meta), Jeff Bezos (Amazon), Sundar Pichai (Google), Elon Musk (X), Shou Zi Chew (TikTok) eta Tim Cook (Apple).

Teknologien garapenak eta horri loturiko eredu ekonomikoak modu askotarikoak izan daitezke, Euskal Herrian eragile oso interesgarriak ditugu lan horretan, teknologiak birpentsatzen, bizitza eta planeta erdigunean izango dituzten ekonomia eraldatzaileen baitan. Benetan uste dut bertan ez ditugula techbro horiek behar. Pentsamendu hauen harira, Hertzainak taldearen *Yankee go home* abestiaren letra etorri zait burura, eta esanahi berri ugari aurkitu dizkiot... ●



ENBATA

EH ez da salgai, legedia ere ez

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Lurraren alde borrokan dabilen orok begi onez hartu du Frantziako Legebiltzarrak laborantza lurren babesteko lege-proposamenaren alde bozkatu izana. Peio Dufau diputatu abertzaleak aurkezturiko testua da, eta politikoa eta sentimentala juntaturik, hemizikloan Arbonako okupazioa, Willisen *Ilegala* kantua eta bere buruaz bertze egindako Andde lekondar laborari estimatua aipatu izanak hunkipen berezia ere eragin dio anitzi.

Legeak ez du dena egiten, baina legea aurka izateak trabak jartzen dizkio aldarriari. Dela *Euskaraz bizi nahi dut!*, *Espekulazioari stop!*, *Nire gorputza, nire erabakia!* ala *Amalurra defendatu dezagun!*, legea alde ukatea beti da lagungarri.

Senatura helduko da laster testua, behin betiko bozketa aitzin. Dударik ez, etxebizitzaren eskubidea zangopilaturik, diruz galkatzen dabiltzan higiezin agentzien lobbyek beraien presionatze eta xarmatze estrategia azkartuko dutela. Funtsean, lege-proposamena bozkatu eta berehala jarri dute salaketa Europako Batzordean. Jabetza-eskubidea urraturik omen delako. Beste lege bat ere dute jomugan marrazo horiek: 2021eko abuztuaren 22ko Klima eta Erresilientzia Legea, lurren artifizializazioaren bukaera finkatzera datorrena. Jomuga argia finkaturik du testu horrek: eraikuntzara bideratu lurren kopurua erdira zaitzea 2030erako eta erabat deuseztatzea 2050erako. Lur gehiegi jan delako azken hamarkadetan -250.000 hektarea lur desagerturik 2011 eta 2021 urteen artean Frantziako Estatuan, eta 130 hektarea Ipar Euskal Herrian-. Kontua da testu berri bat dutela orain esku artean parlamentariak, 2030erako jarritako helburua ezeztatzeko asmoz. Zinezko trantsizio ekologiko baten aldeko legedi eta politika oro blokeatzeko lanetan dabiltza lobbyak, eta emaitzak biltzen ari dira.

Legearen babesa bermatu bitartean, norbanakook badugu zer egina. Hasteko, lurra edota etxebizitza saltzerakoan dirutza biltzeko jarrera alde batera utzi eta etxebizitza/lurra lantzeko eskubidea lehenestea -hots, gure barnean daukagun deabru espekulatzailearen tentazioen pean ez plegatzea, espekulazioa ez delako bakarrik Errusiatik ala Paristik datorren burgesaren kulpaa-. Eta bukatzeko, bizitokiaz dugun ikuspegia aldatu beharra daukagu, belaunaldiz belaunaldi seme-alaba bakoitzak bere etxe indibiduala eraikitzeko joera ez delako iraunkorra. Guraso izan zirenen etxe huts gehiegi eta lur gutiegi daukagu horrela segitu ahal izateko. ●

“ Adinka sailkatzen den mundua da literatura, eta guk partekatu egin nahi dugu ”

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Martxoaren 17an hasi eta hila bukatu bitartean, *Literatura Plazara* jaialdia egingo da Oiartzunen. Hirugarren urtez antolatu da, bigarren bi asteko formatuan. Bi Salaberriatar anaien 1545 argialetxea dago honen guztiaren atzean; haur eta gazteei bideratutako lanetan ari dira batez ere, literaturaren eta filosofiararen artean zabuka. Xabi Salaberriarekin hitz egin du Oiartzun Irratiak eta ordu erdiko elkarrizketa horretan xehatu dituzte aurtengo detaileak.

Kartela ikuste hutsak ageri-agerian uzten du lehen bihurrikeria. Izan ere, *Literatura Plazara* ipini bai, baina E gainetik idatzia ere badator: *Literatura Plazara*. Plazatik plazerera, alegia. Biak jorratu asmo dituzte, Salaberriak kontatu duenez: "Literatura maite eta gozatzen dugunok, urtean behin bada ere, plaza hartu nahi dugu liburu bidez; hala, iruditzen zait badela aldarrikatze modu bat, kultura eta euskal literatura erdigunera eramatekoa. Plaza hartu eta partekatzen dugun zaletasuna ageri-agerian utzi nahi dugu".

ADIN GUZTIEI PARTEKATUTA

Salaberriak aitortu du urteen poderioz, hirugarren edizioa delako datorrena, "era

kontzienteagoan" ari direla osatzen egitaraua adin guztiei begira. "Lehen gehiago zen haurrentzat ipuin kontaketa bat antolatzea, ondoren gazteentzako idazketa tailerra, helduentzako gauza diferenteak... Aurten baditugu denentzako moduko emandialdiak", adierazi du Salaberriak. "Nahita egindako esfortzu bat da".

Horretan ari dira lanean, ez bakarrik ziurtatzen adin guztientzako eskaintza dagoela, baizik eta, baita ere, adin guztietarako balio duten ekintzak daudela. "Adinka sailkatzen den mundua da literatura, eta guk partekatu egin nahi dugu, belaunaldi ezberdinen artean gozatu; hori probatuko dugu aurten".

BI HITZORDU BEREZI DENENTZAT

Adin guztietako herritarrak bildu asmo dituen ekintzak bi izango dira. Martxoaren 23an, goizean, *Luma Kantaria* liburuz mintzatuko dira herriko irakurle talde diferenteak. Joseba Sarrionandiak idatzirik izen bereko testua, *Ainhoari gutunak* liburuan datorrena, berrargitaratu egin du 1545 argialetxeak. Oiartzungo LH5-6, DBH eta helduen irakurle taldean, hiruretan landu berri dute liburua, eta, bakoitzak bere modura egin

duenez, aukera izango dute galderak egiteko bai Sarrionandiari eta bai Idoia Beratarbide egileei.

Martxoaren 28an, "irakurketa festa herrikoa" egingo dute Kontzejupe plazan. Beste herri batzuetan-eta funtzionatu izan duelakoan, Oiartzunera eramango duten formatua izango da: talde txikiak osatu ondoren, 45 minutu emango dituzte elkarrekin irakurtzeko eta gero talde handian komentatu, partekatu edota gomendatuko dituzte liburuak. "Normalean bakarrik egiten den ekintza da irakurketa, baina orain binaka, hiru edo guraso batek lau-bost ume elkartuta egiteko modukoa da", adierazi du Salaberriak. Posible izango da, akaso, hiru urteko haur baten talde txikiarekin 80 urteko heldu bat ere egotea; "hau berria da, ez dakigu nola aterako den", esan du.

Beste zazpi hitzordu ere antolatu dituzte: haur, nerabe eta gazteentzako ipuin kontaketa eta idazketa tailerrak, Nerea Loiolak eta Yolanda Arrietak emanak; Alaia Martinen *PUF* album ilustratua oinarritutako bertso-saio musikatua Amets Arzallus eta Miren Artetxerekin; pote filosofikoa Iñigo Martinez filosofo eta Olatz Mitxelena irakaslearekin; eta Uxue Alberdi eta Danele Sarrigarterekin ibilbide literarioa. ●

MOTZEAN

Hilda agertu da beste preso bat Zaballako espetxean. 34 edo 35 urteko gizonezkoa, gasteiztarra eta alaba baten aita, martxoaren 13tik 14rako gauean hil zen, Salhaketak jakinarazi duenez. Elkarrekin gogoratu du Jaurilaritzak espetxe eskumena hartu zuenetik hiltzen den 9. preso dela.

9 eta 17 urte arteko 11 adin txikikori sexu gehiegikeriak egiteagatik eta haur pornografiako edukiak izateagatik 85 urteko kartzela zigorra eskatu du fiskaltzak Hondarribiko surf irakasle erasotzailearentzat. Martxoaren 10ean hasi zen epaiketa eta gutxienez martxoaren 21era arte luzatuko da.

Pablo Gonzálezen aurkako zigor auzibidea itxi du Poloniako Justiziak. Varsoviako Barrutiko Auzitegiak argudiatu du González jada ez dagoela Polonian, eta ezin dutela jakin noiz aterako den Errusiatik. Auzitegiak ez du kazetari nabarniztarraren aurkako bestelako prozedurarik abian jarriko.

Daniela Albizu irakasle, ekintzaile eta euskaltzaleari plaza bat eskaini diote Urruñan. Herriko etxean hautetsi gisa sartu zen lehen emazte abertzalea izan zen, eta bere bizitza euskararen, euskal kulturaren eta justiziaren aldeko borrokari eskaini zion. Euskal kulturaren zutabeetako bat izan zen.

ZUHAITZ LANDAKETA: MOZKETA MASIBOAK EGIN AHAL IZATEKO JUKUTRIA "BERDEA"

Mila milioika mintzo dira agintariak. CO₂ isurketak konpentsatzeko neurri eraginkor gisa aurkeztuta, zuhaitz landaketei buruzko zifra alimaleak entzuten dira azken urteetan. Trantsiziorako bide interesgarria izan zitekeen, orain arteko oihanak zainduta eta bioaniztasuna iparrorratz gisa harturik bideratuak izan balitz. Baina ez doa horrela: oihangintzako lobbyen presioaren pean makurturik, basoen mozketak masiboak bideratzen eta zegoen ekosistema aberats hori monokulturaz ordezkatzeko dabilta.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Europar Batasunak 3.000 milioi arbola landaturik 2030erako, Nazio Batuen Erakundeak ere 120 milioi hektarea oihan landatu nahi ditu ordurako, AEBek beste 1.000 milioi arbola eta Australiak ere beste hainbeste. Kopuru handiak dira, eta mundua hartzera doan norabidea ikusita, helburu anbiziotsu horiek ongi etorriak zaizkigula pentsatu daiteke. Baina oihana estaltzen duen zuhaitzaren gisara, merezi du hurbilagotik begiratzea instituzio boteretsu horien asmoari. Non landatzen dituzte arbolak? Zer nolako espazioa dute okupatzen? Eta zein arbola dute landatzen? Noren

interesei erantzuten dabilta baso-sartze horiekin?

Gure errealitate hurbilari begira jarrita, beste zifra potolo bat dugu mahai gainean: 1.000 milioi arbola landatzeko engaiamendua hartu zuen 2022an Emmanuel Macron Frantziako presidentek, ofizialki klima larrialdia erantzun erronkari aurre egiteko. "Absurdotzat" jo zuen garaian Canopée elkartearen kide Bruno Doucetek. Oihan bizien aldeko lan baliotsua egiten dabilen elkarrekin da Canopée eta herritarren sostenguan oinarriturik, agintarien eta industriaren lobbyen parean "kontra-boterea" izan nahi du. Ondokoa dio Doucetek:

"Zerbaki potoloa da eta inpresionatzen du. Arreta piztea lortu du. Baina, jakin oihan batean ez dela arbolarik landatu beharrik, gizakiak etorri aitzin hor ziren, eta naturalki arraberritzen dira. Bilioi bat arbola landatu nahi izateak argi uzten du oihanaren funtzionamenduz ez dakiela ezer".

Basogintzako industriari begiratuta hobeki ulertzen da helburua. *France relance* izena jarrita, entitate publiko zein pribatuei dirulaguntzak bideratzen dabil Frantziako Trantsizio Ekologikoaren ministerioa. Helburua: 2023rako %50 gutitzea berotegi efektuko gasen isurketak. Milioika kontatzen den diru





Oihanen mozketa masiboak emendatuz doaz Frantziako Estatuan. Ipar Euskal Herrian ere egonen dira gerora, tartean, Biarnon egitekoa duten E-CHO makroproiektua gauzatzen baldin badute.

SOS FÔRET


zama horri begira dago oihangintzako industria ere, eta azken hamarkadan zehar lobby lan emankorra eginik, lortu du basoen kudeaketa industrialera bideratzea zatirik handiena.

Sektoreko eragile nagusietarikoa den Alliance Fôrets Bois kooperatibak 2012an plazaratu manifestua dago norabide berri horren oinarrian: oihanak landatzearen aldeko argumentu-sorta zabaldu zuen orduan, araberako politika bat galdetuta gobernukideei. Industriaren mesederako urtero hiru milioi tona egur ekoizten dabilen enpresa boteretsua da Alliance Fôrets Bois,

**Frantziako Gobernuak
diru publikoz lagunduriko
landaketen %85 egin
da osoki mozturiko eta
desagerrarazitako oihan
baten eremuan**

eta bere ondoan ditu beste lau –CFBL, Unisylva, Forêts et Bois de l'Est, Nord-Seine Forêt-. Bosten artean kontrolatzen dute kasik Frantziako Estatuako oihangintzaren merkatu osoa.

Bost horien interesen alde doan politika marraztu dute Matignoneko bulegoetan: basogintzak energia "berdea" dakar, berotegi efektuko gasen isurketak gutitzeko bidean alternatiba ona da, eta hori bermatu ahal izateko ezinbestekoak diren zuhaitz mozte masiboak ez dira kaltegarriak; eta finean, arbola berrien landaketaz estaliko dituzte husturiko eremuak. Guzia oihana bezain



IPAR EUSKAL HERRIKO OIHANAK ERE INDUSTRIAREN JOMUGAN

Aitzina doa ARGIAren 2.873. zenbakian aurkezturiko E-CHO makroproiektua. Hidrogenoa eta bioerregaiak ekoizteko Zuberotatik hurbil den Biarnoko Lacq herrian xede duten egitasmoa da, hein handi batean diru publikoz finantzatua litzatekeena. 14.000 hektarea oihan moztuko lituzkete lehen bost urteetan, eta ondotik, urtero 1.170 hektarea liraterke desagertuko. Lacq herritik 200 kilometro inguruko zuhaitzak dituzte jomu-

gan, hots, Ipar Euskal Herriko basoak ere dituzte begibistan. Iratiko 20.000 hektareak hamabost urtez desagertuko liraterke.

Azken aldian erabat bes-telakotu ditu bere datuak oinarrian dagoen Elyse Energy enpresak: "Lausotasun handia zabaldu dute, duela hilabete batzuk genekiena baino gauza gutiago dakigu orain", dio Victor Pachon ekologistak. Hori bai, dakitena da aitzina doala egitasmoa, eta inkesta publikoa

abiatu beharko luketela laster. Bizkitartean, ekainaren 14rako Pauen (Biarno) manifestazio bat antolatu dute aurkakoek. Euskal Hirigune Elkargoak ere bere kezka adierazi zion eskualdeko prefetari abenduaren 12an bidalitako gutunaren bidez: oihanen "kudeaketa iraunkorra" lehenesten duela erranik, E-CHOk ondorioztatu-ko lituzkeen mozketa masiboegi begira kritikoa agertu da Ipar Euskal Herriko instituzioa.

"berde". Laburbide bat badirudi ere, dagoena hori bezain sinplea da. Tes-tuinguru horretan kokatuta bakarrik ulertu dezakegu Macronen arbolak landatzeko bapateko gogoia. Osotasun horretan kokatu behar da ere 2035erako oihan mozketak %70 emendatzeko helburua.

Hori horrela, diru publikoz sustaturiko landaketei begira jarri gaitezen: diruztaturiko proiektuen %85 oihanaren mozketa masibo baten ondotik egin da. Trantsizio Ekologikoaren ministerioak finkatu irizpideak malaguegiak direlako: baso bateko zuhaitzen %20 iharturik edota ahuldurik denean, orduan, guz-ia errotik kendu daiteke. Hori horrela, osasun onean ziren behar baino oihan gehiago dituzte desagerrarazi. Begi-bistakoa da azken urteetan Frantziako Estatuan bideraturiko oihan bizien de-sagerpena.

Ondotik datozen birlandatzeak ez dira baitezpada emankorrak, lurzoru biluzian landaturik, beroari eta egarria-

ri aurre egiteko zailtasunak dituztelako landatu berriek. Pentsa, 2022an Fran-tziako Estatuan landaturiko oihanen %38 hil ziren. Oihan zaharrek eta natu-ralek hori dakarte: tamaina eta barie-tate aniztasunari esker, elkar-babesten dira zuhaitzak eta oro har, ekosistema horretako bizidun guztiak. Oreka hori ordezka-ezina da, batez ere barietetate bakarrenekin bagabiltza.

LANDATURIKO %83 MONOKULTURAN

Canopée elkartearen lanari esker dakigu arbola landaketen %83 monokulturan bideratu dutela, eta gehienetan Douglas izeia (*Pseudotsuga menziesii*) sustraituta gainera. Alta, zuhaitz hau ez da bereziki egokiena klima larrialdiar aurre egiteko. Baina, sektore industrialak ezinbes-tekoa duen produktibitateari erantzuteko materia ona da: berez AEBetako zena, modu intentsiboan kokatua da Atlantikoaren alde honetan ere, finean, laster hazten delako eta gainera, kalita-tezko zura dakarrelako. Zeozer dakigu

logika horretaz euskaldunok ere, pinuz eta eukalipto inguraturikook.

Oihan zaharrak monokulturarekin ordezkatzearen larrialdiaz ohartaraz-teko iritzi artikulua bat plazaratu zuten 600 ikerlari, hautetsi eta oihangintzako eragilek 2022ko urrian. Bertan ondo-koa irakurri zitekeen: "Benetan eman-korra eta eraginkorra den estrategia zuhaitz-populazioen laguntzean eta hobetzean datza". Diruz, kostu anitzez gutiagoko estrategia litzateke gainera.

Guzia dute beraien alde industria-lek, finean zuhaitz aldaxken merkatuko eragile nagusienetarikoak ere direlako. Sal-erositako aldaxken herenaren ekoizlea da, demagun, Alliance Fôrets Bois. Nola ez, Trantsizio Ekologikoaren ministerioak 2018an sorturiko "Karbo-no apala" deitu labela jasota dute en-presa handien egitasmo anitzek. Azken honek "oihangintzaren alde" dabilzan proiektuak ziurtatzeko balio du. Alta, hainbat kritika egin dizkiote ekologis-tek: oihanen mozketa masiboak ditue-



EFE / TERESA SUARES

1.000 MILIOI ARBOLA Frantziako presidente Emmanuel Macronek ere hitz emanik du 1.000 milioi zuhaitzen landaketa. Bere politikari segi, diru publikoz sostengaturiko landaketen %83 monokulturara bideratu dute. Landaketen %85 egin da osoki mozturiko eta desagerrarazitako oihan baten eremuan.

lako nagusiki babesten, eta bioaniztasuna bermatzearen baldintza bigarren mailan kokatzen duelako.

Jakina da karbono dioxidoa xurgatzeko ezinbesteko ekosistema dela basoa, ozeanoekin batera. Baina arazoa da mozketa masibo horien bitartez lurzorua ere higatzen dutela, bertan metaturiko gasak askatuta atmosferara.

Hori horrela, Fôret.nature egiturak dio: Frantziako Estatuko oihaneke 2008an xurgaturiko CO₂ kantitatearen erdia xurgatu zuten 2020an. Bistan da, hori ere eritasunak, suteak ala idortekak, baina, arrazoi nagusien artean ditugu mozketa masiboak ere.

Hori guzia jakinda, are galdekagarriagoa da oihangintzatik datorren

energiari –biomasari– lotzen dioten "energia berdearen" izendapena. Geroz eta zientzialari gehiagok dute alarma gorria piztuta: ez dezagun aterabide gisa har oihanen biomasa, kutsakorra delako izugarri, erreportajea aipaturiko arrazoi guziengatik, baita kontsumitzaerakoan gas kutsagarriak aireratzen dituelako ere. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Hwei-Ru Tsou

BRIGADISTA TXINATARRAK XEDE



BATERA GOGORATZEN DITUGU GAZA ETA GERNIKA



lazko uztailean, ARGIAren 2.880. zenbakiko orrialdeotan genuen Bego Ariznabarreta Orbea. Bere aitaren gudaritzaz ari zen, eta 1936ko Gerra Zibilean lagun egindako Aking Chan *Xangai* brigadista txinatarrak ere mintzatu zitzaigun. Oraindik orain, berriz, Gasteizen hartu ditu Hwei-Ru eta Len Tsou senar-emazteak: brigadista haietako bakoitzaren memoria berreskuratzeko lanean ari dira.

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Euskal Herrian izan zaituztegu...

Begoren [Ariznabarreta Orbea] aita Espainiako Gerra Zibilean borrokatu zen eta, inondik ere, hainbat gauza idatzi zituen. Begok kontatuta dakigu, pandemia urtean hainbat dokumentu aurkitu zituztela etxeko ganbaran. Aita hilik zen ordurako, eta, ezustean, koadernoak eta beste agertu zitzaizkien. Haietan, Begoren aitak gerrako gorabeherak kontatzen zituen, hainbat izen ere idatzirik ematen zituen, eta, tartean, harriarriro, txinatar batena: Aking Chan brigadistarena.

***Xangai*, alegia.**

Baina Aking Chan zuen izena, izen horrexek ez bestek balio du guretzat. Informazioaren garrantziaz oharturik, Begok aitaren ibilari buruzko artikulua sendoa idaztea hartu zuen asmoz eta, horretan ari zela, guk idatzitako liburuaren berri izan zuen. Gure lana gaztelaniara itzuli zuen itzultzailearen bidez, gurekin harremanetan jartzen asmatu zuen, Aking Chan eta bere aitaren historia gurekin partekatzeko. Estimatzekoa. Horrexek ekarri gaitu Euskal Herrira.

Begok berak kontatu zigun egindako bidea... Zuenaren berririk ez dugu. Eta, hala ere, Begok esanda dakigunez, zu zeu kimikaria zaitugu, eta Len zure senarra, berriz, ingeniaria. Alegia, ez historialari, ez antropologo, ez gisakorik. Eta, are, txinatarrak zaituztegu, baina estatubatuarrak aspaldi.

Zuzen ari zara. Zientzialariak gara, zorroztasuna behar da zientzian, eta saiatuko gara zure galderari atalka erantzuten. Egia da, esate baterako, askok bizi duela harridura hori, alegia. Oroz lehen,



Hwei-Ru Tsou

TXINA



Txinan jaioa, oraintsu 70 urte. Txinatar Taiwanera lekualdatu zen Hwei-Ru Tsou eta, hurrena, unibertsitate ikasketak egitera, AEBetara jo zuen; bide bertsua egin zuen senarrak. Kimikaria Hwei-Ru, ingeniaria Len Tsou, doktoratu, eta bertan gelditu ziren lanean, New York estatuan. Hantxe bizi izan ziren erretiroa hartu, eta San Frantziskora (Kalifornia) lekualdatu ziren arte. Hantxe egin zuten topo beren ikergaiarekin eta idatzi zuten, txineraz, 2001ean, Espainiako Gerra Zibilean parte hartu zuten brigadista txinatarrei buruzko lana. Gaztelaniazko itzulpena du: *Los brigadistas chinos en la guerra civil. La llamada de España (1936 – 1939)* (Los libros de la catarata, 2013).

jakin nahi izaten dute zer dela-eta sartu ginen gu saltsa honetan. Gure lagunek ere, Len eta biok gai honi buruzko ikerketan murgildu gine-la jakin zutenean, ezin sinetsi zuten. “Baina, zer dela-eta ari zarete horretan? Brigadista txinatarrek Espainiako Gerra Zibilean?”.

Horixe nire galdera...

Zure galdera, gure lagunena, eta Espainiako gerra hartan parte hartutako brigadista europarren edota estatu-batuarena. “Baina, arao eta birao! Zer dela-eta?! Nondik datorkizue interesa?”. Ez zuten ulertzen bi zientzialarik gaiari buruzko interesik izatea. Baina brigadista txinatarrek Espainiako Gerra Zibilean egin zuten historia liluragarria da. Esan behar da gerra hura ezohikoa izan zela. Jakina, zernahi gerratan ohi denez, era guztietako desmasiak egin zituzten batzuek eta besteek, baina garaia historikoa zen, hura nazioarteko faxismoaren kontrako borroka ere bazen –hortxe Alemaniako eta Italiako totalitarismoak–, eta munduko lau ertzetako 40.000 boluntariok Espainiara bidea hartu zuten.

Faxismoaren kontrako borroka zen zio, beraz.

Ez dudarik izan! Boluntario haien artean, hainbat txinatar borrokatu ziren. 50en bat izango ziren, guk zorrotasunik handienaz bildutako datuek erakusten digutenez. Urteak daramatzagu lanean, halako batean 1986an –Espainiako Gerraren 50. urteurrenaren kariatara–, AEBetako [Abraham] Lincoln Brigadak argitaratutako publikazio bat esku artean hartu genuen. Brigada hartako kideek –estatu-batuarrak, gutiz gehienak–, osatutako argazki-albuma zen eta, tartean, eta ezustean, hiruzpalau izen, txinatar itxurakoak. Segituan, bata bestearen ondotik etorri zitzaizkigun galderak.

Zer galdera, alegia?

Nor eta nor ziren txinatar haiek? Zer dela-eta joan ziren Espainiako gerran borrokatzera? Nondik joan ziren? Txinatar gehiago ere izan ote ziren gerra hartan? Zenbat izan ote ziren

denera?... Galderak bai, erantzunik ez, orde, eta, jakin-min handiz, ikertzeari lotu gintzaizkion senarra eta biok. Baina, laster ohartu ginenez, ez zen gauza erraza. Nahi beste liburu eta publikazio idatzi dira nazioarteko brigadei buruz, baina besterik da txinatar soldaduez okupatu den argitalpe-nez. Bateko eta besteko artxibategiak arakatu, eta orduan ez genuen ezer aurkitu. Eta, ezinbestean, ahozko lekukotasunak biltzea erabaki genuen.

Nondik hasi zineten lekukotasunak biltzen, orde?

Zoria zer den! New York Estatuan egin genuen biziko lana, eta gero Kaliforniara erretiratu ginen, San Frantziskora. Iragan mendeko 1980ko hamarkadako kontuak dira. AEBek Latinoamerikako herrialdeetako politikan interbenitzea ez da bart arratseko afera, estatu-kolpeak eta errepresioa sustatzea, gobernuak ezegonkortzea eta beste. Gogoan dut interbentzionismo horren kontrako kaleko manifestazioetan parte hartu ohi genuela senarrak eta biok, eta beti hantxe ikusten genituela gerrako beterano batzuk, Lincoln Brigadaren banderak airean. Adineko jendea zen, ordurako, baina hantxe ziren beti, manifestazioetan, duintasun handiz desfilatzen. Hurrena, brigada haren publikazioa ikusi genuenean, arretaz aztertu genuen.

Bigarren Mundu Gerrarik ez zatekeen izango Mendebaldeko potentziek, urte batzuk lehenago, italiar-germano faxismoari aurre egitea erabaki izan balute”

Zer zen publikazio hori?

Espainiako gerraren 50. urteurreneko argazki-albuma. Brigadako kide izandako guztien zerrenda zekarren eta, tartean, hiru izen txinatar itxurakoak irakurri genituen. Harrigarria iruditu zitzaigun, Espainiako gerraren sasoiari Txina bera gerran baitzegoen, 1931z gero, Japoniaren kontra. Alegia, Txina Japoniaren erasoari eutsi nahi eta ezinean gorriak ikusten ari zen garaian, dena beharrez zenean, zenbait txinatar Espainiako gerran ari ziren borrokan! Hortaz, hor bazen zerbait, ez zen erraz ulertzen. Deigarria zen. Eta galdezka hasi ginen.

Nori, orde?

Lincoln Brigadako kideei, manifestazioetan ikusten genituenei! Haien bi-



Euskal Herrian egindako egonaldian Gernikan ere izan da Hwei-Ru: "Bihotzean daramagu Gernika".

dez, brigadako bi beteranorekin hitz egitera heldu ginen, eta gerran bi brigadista txinatar ezagutu zituztela esan ziguten. Hori ez ezik, txinatar haien argazki bat eta sinadura bat zeuzkaten gordeta. Alegia, horrek tolesik gabe erakutsi zigun brigadista txinatarrik izan zela Espainiako Gerra Zibilean. Bitartean, dena den, hamaika gutun idatzi genituen batera eta bestera, galdezka. Eta, halako batean, San Frantziskoko [Kalifornia] Chinatowneko historialari baten erantzuna jaso genuen, esanez gerra garaian zenbait egunkari txinatarrek –baina AEBetakoak, New Yorken publikatuak–, brigadista txinatarren albisteak eman izan zituztela eta, are, zortziren izenak ere ipini zituztela kazetan!

Bidea egin zenuten, horratik!

Lincoln Brigadakoek beren liburua argitaratu zuten urte berean [1986], bibliotekak-eta aztertzen hasi ginen, Espainiako Gerra Zibilari buruzko liburu zaharren bila. Asteburuetan, berriz, New York Hiriko Strand liburu denda handira. Berdin: Espainiako gerrari buruzko liburu guztiak hartu, eta banan-banan aztertzen ematen genituen orduak. Hurrena, 1988an, Len, Bartzelonara joan zen Lincoln Brigadako zenbait kiderekin. Nazioarteko biltzarra-edo zen, eta Lenek, Lincoln Brigadako bitartez, biltzarreko buru Steve Nelsonekin hitz egin zuen, zertan ari ginen adierazi zion, eta hark, biltzarkideei jakinarazi zion brigadista txinatarren gaineko informazioa biltzen ari ginela, eta dei egin zion,

inork ezer jakitekotan, gurekin harremanetan jartzeko. Saio hura bukatu orduko, bi pertsona etorri zitzaizkion Leni, bi brigadista txinatar ezagutu zituztela esanez. Inmunizazio-agiria eta argazki bana zeuzkaten gordeta. Hurrena, bideo bat ere bazela jakin genuen, eta ikusi ahal izan genuen, jakina. Hasi ginenetik ez diogu utzi gaia ikertzeari.

Hariari tiraka eta tiraka ari zarete joan den 40 urtean!

Bai. Batean, boluntario txinatarren senideak lokalizatu ditugu. Bestean, AEBek kanpoko zenbait beterano, brigadista txinatarrek ezagututakoak. Zenbait kasutan, ez zituzten bertatik bertara ezagutu, baina haien gaineko materiala zuten, argazki, agiri edo dena delako. Batzuek, brigadista txinatar gehiago lokalizatzen lagundu digute –haien gaineko informazioa emango zigun jendea, esan nahi dut–, edo bestelako informazioa biltzen. Munduan barrena ibili behar izan dugu, jendearekin hitz egiten edota artxibategiak aztertzen. AEBak, Herbehereak, Paris, Londres eta Espainiako [Salamanca, Avila, Madrid] hainbat artxibategi arakatu genituen. Eta, egoera samurru zenean, baita Moskukoak ere! Diren eta ez diren dokumentu guztien bila ibili gara, eta gabilza, brigadista txinatarren atzetik.

Noizbait, brigadistek alde egin behar izan zuten Espainiatik...

Nazioarteko brigadari dagokionez, 1938aren amaiera aldera alde egin zuten. Ondoko urteko urtarrilean, matxina-



FRANCOK AUKERARIK EZ

“Francok estatu-kolpea jo, eta ia lau egunean indar errebeldeek lurraldearen herena okupatu zuten. Hala ere, kontra altxatu zen herria. Francok eliteko tropak zituen Marokon, baina Gibraltarreko itsasartea igarotzeko modurik ez zuten. Alemaniaren Madrileko enbaxadatik ere halako mezua bidali zuten Berlinera: 'Apartekorik gertatzen ez bada, Francok ez dauka irabazteko aukerarik'”.

INGALATERRA

“Frantziak armak saldu nahi zizkion Errepublikari, baina Ingalaterrak ezetz esan zion, eta Europako herrialde gehienek Esku ez hartzeko ituna sinatu zuten, Alemania, Italia eta Sobietar Batasuna barne zirela. AEBek, ‘neutraltasunari’ eutsi zioten. Paper erreza izan zen, dakigunez. Alemaniak eta Italiak ez zuten bete, eta Ingalaterrak Gibraltarreko komunikazio-sarea erabiltzen utzi zion Francoren armadari. Errepublikaren gobernuak, aldiz, eskuak loturik zegoen, Esku ez hartzeko ituna medio”.

Azken hitza **AEB-AK NEUTRALAK?**

“Texacok nahi beste petrolio saldu zion, kreditu bigunetan, Francori. General Motors eta Fordek, milaka kamioi. DuPont [de Neumors] enpresak, hainbeste obus. AEBen neutraltasuna? Zer neutraltasun?”.

Len Tsou, senarra,
eta Hwei-Ru.

milioi pertsona hil zirela esaten da, eta, inondik ere, Bigarren Mundu Gerrarik ez zatekeen izango Mendebaldeko potentziek, urte batzuk lehenago, italiar-germano faxismoari aurre egitea erabaki izan balute.

Hitz beste eginez, Hwei-Ru, arestian esan diguzu munduan barrena ibili zarete. Ibilera horren barruan da Euskal Herrira etorri izana?

Bai. Bego [Ariznabarreta Orbea] gurekin harremanetan jarri zenean, Aking Chani buruzko informazioa zuela esan zigun, aitak Aking Chan ezagutu zuela, koardernoetan hau eta hura kontaktzen zuela. Eta horrela etorri gara Euskal Herrira, Bego ezagutuzera, Gernika ikustera eta, jakina, Begoren aitak [Luis Ariznabarreta Zubiaurre gudaria] idatzitakoa bertatik bertara ikustera. Pandemiaren urtean, dena e-postaz bidali zigun, baina geure begieztan ikustea besterik izan da.

Miranda Ebroko kontzentrazio-esparruan izan ziren bi lagunak, Ariznabarreta eta Aking Chan...

Begok esanda jakin genuen. Biak preso hartu zituzten [1937ko urriaren 20an, Trubian, Asturiasen], eta Begoren aitak lau urte egin zituen Miranda Ebroko esparruan eta, Aking Chanek, berriz, sei. Biek lan bortxatuak egin behar izan zituzten. Chan 1943an askatu zuten, baina Francok agindua emana zuen preso liberatu guztiek herrialdeetik alde egin behar zutelako 24 orduko epean. Nonbait, Aking Chanek Frantziara egin zuen. Baina askoz gehiagorik ez dakigu, oraingoz. Baliteke inoiz gauza gehiago jakitea. Ezin aterik itxi.

“
Begoren aitak lau urte egin zituen Miranda Ebroko esparruan eta, Aking Chanek, berriz, sei”

Zertzuk ikusi dituzue Euskal Herrian izan zareten bitartean?

Hainbat gauza! Bego ikaragarri saiatu da, programa betea osatu digu. Martxoaren 3ko memoriale [Gasteiz],

Gernika, Miranda Ebroko esparrua, desobiratzeak [Aranzadi Elkartea, Saibigain, Urkiola], Antso Jakituna fundazioa... Begok bazekien zer nahi genuen, gogo turistikoa gabe, interes historikoa genuela. Jakina, Aking Chan zen gure lehenasuna, eta, hortaz, Miranda Ebroko esparrua bisitatu nahi genuen, Aking Chan preso eduki zuten tokia. Momentu berezia izan zen. Monumentu bat jarria dute, eta baso bat ere osatu dute: zuhaitzetako bat Aking Chanen memoriakoa da! Hala ere, nik esatera, Miranda Ebroko esparrua bisitatzeko bezain hunkigarria izan zaigu Gernikan ibiltzea.

Esan zidan Begok, bisita hori ere berezia gertatu zitzaizuela...

Gernika bihotzean daramagulako. Eta nola ez! Gazaren aldeko manifestazioetan parte hartzen dugunean ere, presente dugu Gernika. Gure banderatuak ez dio gezurrik: “Gernika 1937 – Gaza 2023 - 2025”. Batera gogoratzen ditugu Gaza eta Gernika, batera daramatzagu biak gure gogo-bihotzetan. ●

ARABO BERTSO KUADRILLA ARTEKO A 2025

4. FINALERDIA

GILLERNAKO TXOKOAN

12:00-TAN SAIOA

14:00-TAN BAZKARIA

16:30-TAN SAIOA

MARTXOAK 23

IGANDEA GILLERNA

Saio banatako irabazleen artekoa

GORRINO

ARLOBIKO BARDOAK

ARAMAITXOKO TALUEK

ERREXALA

Bazkaria 23euro eta 12 euro (18 urtetik beherakoek) martxoaren 19a baino lehen, www.bertsosarrerak.eus webgunean

www.bertsozale.eus/araba

araba álava leku aldiak

UKS

LABORALE


Vital komunikazioa

USAGA SAGI

artepan

Junta de Gobierno Ayuntamiento de Zala

ARGIA



Infiltratuak, legez kanpo



JESÚS RODRÍGUEZ
DIRECTA-KO KAZETARIA

2022ko ekainaren 7an, *Directa*-k serie luze bateko lehen polizia infiltratuaren kasua argitaratu zuen. Martxoaren 5ean, *Belen Hammad* fikziozko izena erreta geratu zen, polizia-argotean dioten bezala. Jada hamar dira *Directa*, *El Salto* eta *El Diario*-k azken hiru urteetan argitara ateratako infiltratuak. Horiek guztiak sartu dira ezkerreko aktibismo politikoa, mugimendu sozialetan eta independentismo katalanean, espiazteko. Inork ez zuen eragin atxiloketarik edo auzi judizialik. Barne Ministerioak Parlamentuko galderei erantzunez aitortu zuen inteligentzia-agentek zirela –ez ezkutuko agenteak, zeintzuek lege marko bat duten–, Informazioko komisario nagusiaren agindupean, azken batean PSOEko ministro Fernando Grande-Marlaskak kontrolatuta.

Orain arte espiaitutako eragileen zerrrendan daude bai ikasle sindikatuak, bai Palestinaren eta indarkeriarik ezaren aldeko taldeak, bai auzo-elkarteak. Azken finean, Poliziako funtzionarioak ari dira espiazten Espainiako Konstituzioaren arabera askatasunez elkartzeko, biltzeko eta manifestatzeko eskubidea duten espazioak. Errepikatzen ari diren eskandalo hauek argitaratutakoan, deigarria da nola estali duten kasu bakoitza Estatuko Fiskaltza Nagusiak eta botere judizialak: aurkeztutako kereiletako bat ere ez da izapidetzeko onartu.

Espainiako Justiziak legezkotzat jotzen du aktibistaz mozorrotutako po-

Zigorgabetasun sakrosantua dute "dena" Espainiaren alde egiten dutenek, Eugenio Pino CNPko zuzendari laguntzaile ohiak parlamentuan adierazi zuen bezala

liziak mota guztietako eragile politiko eta sozialen egoitzetara sartzera, NAN faltsuen bidez konfiantzazko harremanak eraikitzea abokatuen bulegoetara sartzeko, lokaletako giltzak eta posta elektronikoko pasahitzak izateko, gutunak eta postontziak irekitzeko, eta are lankideen ohean sartzeko ere, helburutzat izanda Grande-Marlaskaren inteligentzia-txostenetarako datuak biltzea. Hori guztia, ustez, Sekretu Ofizialen Legearen babesean: frankismoak utzitako oztopoa, Moncloako apopiloek urtez urte laztantzen dutena arbuiatu gabe. Ez zuen indargabetu Mariano Rajoyk, eta ez du indargabetuko Pedro Sánchezek, nahiz eta "demokrazia eraberritzeko" plana iragarri.

Lehen kasua Katalunian lehertu eta bi urtera, zalapartaka estreinatu dute Arantxa Echevarriaren *La Infiltrada*

filma. Duela urte batzuetatik gidoi bat zuten eginda, lozorroan, baina dena bizkortu zen 2023ko urtarril amaieran, María Luisa Gutiérrez ekoizleak (Bowfinger International Pictures) proiektua bere gain hartu zuenean. Goya saria jasotzean, estatuatxoa Polizia Nazionalari eta terrorismoaren biktimei eskaini zien. Ez zuen aipamenik egin hamabost egun lehenago TV3n eman zuten *Infiltrats* dokumentalari buruz. Duela 30 urte Aranzazu Berradre infiltratuak lagundu zuen ETAre Donosti komandoko kideak atxilotzen; eta duela 30 urteko gertakari horiekin eraiki nahi dute kezo hesi bat oraingo errealitatearen gainean, non eskubide ugari urratzen diren eta dozenaka pertsonari zauri psikologiko larriak eragiten zaizkien.

ETA amaitu arren, infiltratuak mantendu egin dira independentismoan eta mugimendu sozialetan, PPren edo PSOEren gobernupean. Azalpen ofizialik ez emateak egiten duen zarata; gertaerak ikertzeari uko egitea; eragindako mina zalantzan jartzea eta hutsaltzea. Horrek guztiak beti puntu berera garamatza: zigorgabetasun sakrosantua dute "dena" Espainiaren alde egiten dutenek, Eugenio Pino CNPko zuzendari laguntzaile ohiak parlamentuan adierazi zuen bezala. Izan ere, GALEn espirituak bizirik jarraitzen du nolobait, beti dago babestu beharreko ondasun handiago bat, zuzenbide estatua zapaltzea justifikatzen duena. ●

Eguzki beltza



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Joan den urte hondarrean atera da *L'affaire Ange Soleil, le dépeceur d'Aubervilliers* (Ange Soleil afera, Aubervilliers-ko puskatzailea) eleberria, Christelle Lozère-k idatzia. Lozère da artearen historiako irakasle bakarra Antilletako Unibertsitatean, zehazkiago, Martinikan. Bere amaren aldetik erro euskaldunak ditu, eta aita Guadalupeko independentziaren aldeko militantea zen. Lozère berezitua da margolaritzaren azterketan, eta bereziki arte kolonialean. Bere ikerketen bidez, saiatzten da Antilletako artistak aitzinera ematen, bereziki XVIII.-XIX. mendekoak eta XX. mende hastapenekoak. Alabaina, garai haietan, Antilletan sortu margolari, zizelkari edo idazleak ere, onak baldin baziren, Parisen egiten baldin bazituzten ikasketak eta metropolian lortzen bazuten arrakasta, frantses gisa aurkeztuak ziren, ukatzen zitzaaien haien jatorri antillarra, are gehiago mestizoak baldin baziren, eta oraino gehiago emazteak baldin baziren.

Christelle Lozère xedea da artista haiek ezagutaraztea, antillar gisa aurkeztuta, eta azaltzea zoin baldintza sozopolitikotan ibili ziren. Gomendatzen dizuet ikerlari horren kapsulak begiratzeari, Interneten, *Rendez-vous numéri-*

ques en histoire de l'art des Antilles (Antilletako artearen historiako hitzordu numerikoak) deitzen direnak, adibidez, Jenny Prinssay-ri buruzkoa. Lozère lanean aritu da Clark Art Institute-en, Estatu Batuetan, eta Frantzia Institut National de l'Art erakundean, Villa Vassiliev etxean eta Musée du Quai Branly museoan. Haren tesia, erakusketa kolonialez XIX. mendearen bigarren erdian, Orsay museoak sariztatu zuen.

Baina beste jiterik ere badu Christelle Lozèrek: hastapenean aipatu bezala, eleberri bat idatzi berri du, eleberri historiko bat, hain zuzen ere, polizia-eleberri formakoa. Egiatzko gertakari batean oinarritua da: Ange Soleil gizon biziki karismatikoa zen, seduzitzailea, perbertso nartzisista, hainbat emazte engainatu zituen eta bere emazte martinikarra basaki hil zuena Parisen, 1935ean. Istorio hori, garaian, hedabide guzietan agertu zen, lehen berri gisa, baina arrunt ahantzia da, egun. Liburu horrek kalitate literarioak baditu, segurki, suspensez betea delako, eleberri beltzen giro iluna ongi erakartzen duelako, eta irakurle harrapatua uzten duelako. Horrez gain, 1930eko hamarkadako Parisko komunitate antillarrean murgiltzen da irakurlea, jazz kabaretetan, Ange Solei-

len biktima, Séverine Soleil, dantzaria baitzen holako tokietan. 1935. urtean, preseski, Aimé Césaire-k plazaratu zuen *L'étudiant noir* aldizkariaren lehen zenbakia. Hori ere aipatua zaigu Lozère obran, bai eta garaiko giro soziopolitiko ere: populismoaren igoera, "lanjer beltzaren" beldurra, "Soleil" aferaren instrumentalizazioa (eraiketa gertatu zen Frantzia prestatzen ari zirelarik Antillen jabetzaren 300. urteurrenaren ospakizunak).

Christelle Lozère Ange Soleilen auziko jatorrizko dokumentuetan oinarritu da, garaiko prentsan ere bai, eta bere xedea da hiltzaile makiabeliko haren biktimak omentzea, horiei hitza emanez.

Aimé Césairek izendatzen du gaiztagin izugarri hura *Cahier d'un retour au pays natal* (Sorterrirako itzuleraren koaderno) liburuan: "Soleil, Ange Soleil, Eguzkiaren Aingeru kuskulatua, higuinduraren uren igerika berdetsu eta gozotik haratagoko jauziarendako". Jean Genet-ek ere itxuratu zuen Ange Soleilen pertsonaia fantasmata *Notre Dame des Fleurs* (Loreen geure dama) obran.

Arazakeria eta beldurraren aro garaikidean, feminizidioek irauten duten une hauetan, balio du, zinez, eleberri hau irakurtzeak. ●



DOM CAMPISTRON

Pavloven txakurra eta kanpaia



MAIALEN ARTEAGA
KAZETARIA

Naomiren etxeko eskailerak igotzen ari dela datorkion usainak egiten dio memorian tiro. "Ez da sen ona, memoriaren eta emozioaren arteko lotura da. Baldintzapen klasikoa", pentsatzen du Peterrek bere golkorako *Intermezzo*-n, Sally Rooney irlandarraren azken eleberrian. Aita hil berritan maitalearen epelera egiten du ihes, eta haren etxera heldu orduko badaki zer gertatuko den, formula bera errepikatzen baitu orainetik ihes egin nahi duen aldiro. Beste formula batek ez luke haien artekoa sostengatuko.

Zeu ere batzuetan Peter zara. Batzuetan, orainetik ihesi, elementuren edo pertsonaren batean bilatzen duzu iraganeko oroitzapena berpiztuko dizuna. Berriro biziko ez duzun eta nostalgia ainguratua eragiten dizun hori bera zure hezur haragitan orduan bezala sentitzeko, orduan bezainbeste sentitzeko. Momentu hartara teletransportatzen zaitu. Beste batzuetan, ustekabea, nahi baino maizago, akaso, berriro sekula biziko ez duzun, baina, barruan bizi-bizi duzun oroimen horrek kolpatuko zaitu (iraganeko kontu hori nahiko aparkatuta, geldi, lozorroan zeneukala uste zenuen arren), bai; berriro ere "kantu batek ireki dizu zauria...". Eta beste batzuetan Naomi izango zara norbaitentzat; elementua

baino, atzean dagoen karga. Kantu forman ager zaitezke, bakarra eta errepikaezinena zirudien usain ezagun batean, autobus geltoki batean, edo errepide seinale batean, bertatik pasatzen zen-eta zugana joan behar izaten zuen aldiro. Jakingo balu zeu ere Pavloven txakurra kanpaiarekin nola, lerdea dariola egoten zarela zuen kantuak jotzen duen bakoitzean... "Zuena" deitzen diozu zuk, baina plural inklusiboa zuk asmatu duzu, zurea delako berea baino gehiago. Berak ez daki zuretzat "zuena" dela kantu hori.

Nonbait irakurri nuen Guardia Zibila Kortatu edo Negu Gorriakekin torturatzen zituela euskal herritarrak, gero, parrandaren batean kantu horiek entzuten baldin bazituzten, torturek eragin zieten guztia berriro gogorazteko. Bizi osorako tortura, alegia. Pentsaezina da belaunaldi baten eta garai baten soinu banda izan zena nola izan daitekeen infernurik ilunena berpizteko tresna. Bistakoa da: Pavloven txakurraren izena zein zen ez dakigu, baina badakigu kanpaiak zer botere duen. Baliteke bestearentzat hutsala izatea zuretzat kanpaia den hori, kanpaia zurea delako. Ez da zauri konpartitu bat. Zure kanpaia berarentzat ahots goran abesteko beste kantu bat baino ez da, Kortaturenak bezala. ●

Biharamuna



UXUE APAOLAZA
EUSKARA IRAKASLEA

Igande gaua. Umearen gelako atea itxi du, ez guztiz. Ordenagailu aurrean esertzeko momentua atzeratu nahi du. Ordu asko aurretik. Zazpitan jaiki da, eta, bihar ere, astelehena, hala jaikiko da. Pentsatu gabe ekiten badio, lortu dezake gauak pisu existentzialik ez izatea. Akats tragiko bat egin du: ordenagailura bidean hozkailutik pasa, eta atea ireki.

Azpiko tiraderaren gardentasun gardenak dio ez dagoela frutarik. Ez zuen erosketarik egin, ezta atzo ere. Umeak ez du besterik gosaltzen: hala ere, ez dago besterik. Ezta komuneko paperik ere. Sukaldekoarekin tuberiak ataskatuko dituzte. Ataskatzen dira komunak garbitzen ez ditugulako? Ia egunero gorde-

tzen du tarte bat horretarako, eta maindireak aldatzeko, itzulpena bukatuta izango duelako, baina azkenean inoiz ez dago, eta ez du garbitzen. Klaseak presatzeko, artikulua, eta deitu behar dio umearen psikologoari, joan eskolako bilerara, zuzendu jazarpenagatiko protokoloa hasteko gaizki egindako txostena; arropa zintzilikatu, bi lagun gizonek sortutako bi bakardade kudeatu. Bankura joan helbideratutako zera batean kontu korrontea aldatzera. Gurasoak zaindu (umea zain dezaten). Ez gogoratu umeari eskolan...

Hozkailuko atea itxi, "Psikologoarenera joan behar zenuke, munduaren kontra zaudela dirudi", eta ohera sartu da. ●

Elkarri begira ez, elkarlanean



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
EUSKALTZALEA

Oldarraldia ari du EAEko administrazioa euskalduntzeko erabakien aurka, berriz ere, enegarren aldiz. Oraingoan berrikuntza eta guzti, espainiar epaitegiak eta alderdi eta sindikatu antieuskaldunak elkarlanean ari baitira. Ez dira izan akats tekniko-juridikoak zuzentzeko asmoz abiatutako ekinbideak; oinarri politikoa duten erasoak dira, autonomia mainguari emandako aizkorakadak. Horrek are argiago uzten du Espainiarrekiko independentzia lortu beharra, horretara jarri behar dugu berandu baino lehen. Edonola, bitartean, abertzaleon esku dauden erakundeetan saiatzea dagokigu, elkarri begira egon gabe, murruekin talka egin arren, erakunde horien erabakiak ere baliatzeko euskaldunok euskaraz bizi ahal izan gaitezten. Zeren, bestela, zertarako parte hartu erakundeetan?

Hain zuzen ere, 2014an, Gipuzkoako Foru Aldundian ginela antolatutako Euskararen Lehentasuna jardunaldian, Iñaki Agirreazkuenaga legelariak gogorarazi zuen epaileek baliogabetu

Bi alderdi abertzaleen ekinari esker, Udal Legearen oinarriak prest utzi ziren, tartean administrazioak euskaraz lehentasunez jarduteko neurriak ere

egin ditzaketela arauak, baina ez hala legeak. Horregatik, azpimarratu zuen egitekoak hemen ditugula, Eusko Legebiltzarrak eskumena baitu legeak egiteko. Agintaldi hartan, bi alderdi abertzaleen ekinari esker, Udal Legearen oinarriak prest utzi ziren, tartean administrazioak euskaraz lehentasunez jarduteko eta hirigintzak euskararen erabileran duen eragina malgutzeko neurriak ere. Ez zen lankidetzaren eredu bete-betea izan, baina erakutsi zuen nahi izatera abertzaleok baginela

euskararen aurrerabidearen alde jarduteko gai; gerora, Hezkuntza Legearekin gertatu ez bezala.

Bada lankidetzarako aski gai. Erasopean diren euskara eskakizunen harira, adierazia du Kontseiluak Funtzio Publikoko Legea egokitu beharra dagoela; zer esanik ez Euskararen Legea. Bestalde, hor dugu Kontsumitzaileen Hizkuntza Eskubideen araua, PSEk zikiratua, baina EAJk bere onera ekarri gabea, oraindik. Era berean, Eragin Linguistikoen Ebaluazioen eredu hiri-riburuetarako egokitu beharra dago, Donostiako Udalak Añorga Txikiko hirigintza egitasmoan erakutsi baitu araua funtsik gabe uzteko moduko erabilera egin daitekeela. Bide beretik, bada zereginik udalak euskalduntzeko lanean ere, hala nola Euskararen Ordenantza gainerako ordenantza eta arauarekin uztartzea, eta horietan jasota dauden hizkuntza irizpideak betearazteko tresnak, baliabideak eta protokoloak ezartzea. Beraz, alderdi abertzaleok, elkarri begira egoteko baino elkarlanean aritzeko garaia dugu. ●

ESTREINALDIA

ATERPEA

Diskurtso faxisten dianan dauden herritarren aterpe

Martxoaren 12an hasita
asteazkenean 21:30ean
Hamaika Telebistan

Hamaika

PROIEKTUAREN ERAGILEAK

æk
korrika

MIROKUTANA

JALGI HADI!

DOKUMENTALERAKO
CROWDFUNDING KANPAINA

**EUSKARA BIDEGURUTZEAN DA
ETA EUSKALTZALEOK BERPIZKUNDEA ABIATUKO DUGU,
GURE HIZKUNTZAK ETORKIZUNA IZAN DEZAN.**

Korrikak lotzen dituen zazpi lurraldeetan zehar, gure hizkuntzaren iraganari, orainari eta etorkizunari buruz hausnartuko dugu.

CROWDFUNDING

GOTEQ.ORG

JALGIHADI.EUS



KURDUAK ARO BERRIAN

ATZOKO MAMUAK ETA ETORKIZUNETIK DATORREN GUTUNA

Lurrikara geopolitiko bat astintzen ari da Ekialde Hurbileko mapa. Anabasaren erdian, Abdullah Öcalanen bakerako azken deiak mahai gainean jarri du eskualdeko gatazka armatu zaharrena. Ez, aurrekariak ez diote bide ematen itxaropenari, eta historiaren trena inoiz baino azkarrago doala dirudi. Bertan, milioika kurduk tokia eskatzen dute.

  **KARLOS ZURUTUZA**

Suitzako bailara bat izan zitekeen. Udaberriak eztanda egin berri, elurra zegoen oraindik mendi gailurretan, eta lore sorta batek estaltzen zituen magalak. Paraje idiliko hura, baina, Kurdistango erdigune geografikoan zegoen, Turkiako eta Irakeko mugek talka egiten duten tokian. PKK-k zortzi soldadu turkiar entregatzeko asmoa zeukan; bere esku zeuden azken gerra-presoa ziren. 2013 udaberriean gertatu zen.

Soldaduak etxera onik bueltatu eta astebetera, Newroz urte berri kurduaren egunean, PKK-ko buruzagi Abdu-

Bertako turistak Qandil mendietan, PKKren gotorlekuan.



Allah Öcalanen gutun bat irakurri zen Qandil mendietan: “Aro berri baten hasiera da gaurkoa. Borroka armatuaren aldia amaitzen ari da, eta atea irekitzen zaio politika demokratikoari”, zioen. Askok emantzat jo zuten Ankararen eta iparreko kurduen arteko bakea inoiz baino gertuago zegoela. Gerrillaren gotorlekuan zeuden kurduak, aldiz, ez zetozen bat.

“Zaharrak berri”, bota zidaten, besteak beste, bi seme gerrillan zituen gizon batek, kazetari kurdu batek eta prozesu hartan bete-betean ari zen ordezkari politikoko batek. Azken honek bere izena ez emateko eskatu zidan orduan. De-

segokia zatekeen bake-eragile batek prozesuan ez sinistea. Baina hala zen. Bakerako leiho hori bi urte beranduago itxi zuen Turkiak, paper gainean adostutako inongo pausurik eman gabe. Ez zen harritzekoa, iraganeko antzeko prozesu orok porrot egin baitzuten.

2009 urrian, esaterako, gerlari talde batek Irak eta Turkia arteko muga zeharkatu zuen, oinez, uniformeaz, armarik gabe eta beren zain zeuden dozenaka milaka lagunengandik. Itzela izan zen. Argazki hori ederki gordeta dago iparreko kurduen memoria kolektiboan. Handik bi hilabetera, Turkiak atxilotuta arbitrarioez eta errepresioz zapuztu

zuen itzaropena. “Ilusioa berriz lurperatu zenekoa”; huraxe kronikaren izenburua orri hauetan kontatu genuenean.

Denboran atzerago ere joan gintezke, baina beti egingo genuke murrerarekin topo: gerrillak deitutako alde bakarreko su-etenek, desmobilizazioek, gerra-presoen askapenek... kurduak bake bidean egindako keinu orok ez du erantzunik jasotzen Ankaratik. Aukerarik sendoena zein ote? 1993koa, zalantzarik gabe. Orduko presidente turkiar Turgut Özal bere jatorri kurdua aitortu ez ezik, PKKrekin elkarriketa prozesu itzaropentsu bat jarri zuen abian. Baina Özal hilda agertu zen bere bulegoan.



Turkiar gerra presoek askapen ekitaldian, 2013ko martxoan.

“Bihotzekoak jota”, esan zuen bertsiio ofizialak; “pozoituta”, etxekoek.

Bakerako azkeneko leihoa iragan otsailean zabaldu berri da. “Kurdistan-go Langileen Alderdia desegin beharko litzateke. Deialdi hau egin eta erantzukizun historikoa nire gain hartzen dut”. Abdullah Öcalanen hitzak ziren, berriro ere. Gutuna prentsaurreko batean irakurri zuten Berdintasunaren eta Herrien Demokraziaren Aldeko Alderdiko (DEM) kideek, eta sare sozialen bidez zabaldu zen. Turkiako kurduen alderdi aurrerakoia dugu DEM. Bere bitartekaritza –Öcalan eta PKK-ko buruzagitza artean– ezinbestekoa da bakeranzko urrats oro eman ahal izateko.

1999tik preso dagoen buruzagi kurduak aho bete hortz utzi zituen hainbat kurdu eta ez kurdu. PKK desegin? Zeren truk? “Marko demokratiko baten barruan” baino ezin zela gertatu zioen preso kurdu ospetsuenak. Nahasmena zen nagusi.

DEMeko iturriek ARGIAri baieztatu legez, PKK-ko buruzagiekin kontrastatu zen idatzia argitaratu aurretik. Hala-ber, “diskreziolari eustea” erabaki dute. “Xehetasunak Turkiako Estatuarekin eta alderdi politikoekin eztabaidatuko dira mahai batean”, gaineratu dute DEMetik.

Hiru hilabeteko epea eman diote elkarritzeta prozesuari. Ankara eta kurduen arteko sua betirako itzaltzea dute helburu. Urte gehiegi daramatza piztuta.

Öcalanek 1984an bideratu zuen PKK taldea ekintza armaturantz. 75 urte dituen presoak espetxean bete ditu azken 25ak. Siriako erbestealdian urteak taldearen buruan eman ondoren, Turkiako agente bereziek 1999an atxilotu zuten Kenian, Greziako enbaxadatik Nairobiko aireportura zihoala. Operazio hartan CIA eta Mossad-eko agenteek ere parte hartu zutelakoan daude aditu asko.

Hasiera batean, heriotza zigorra ezarri zitzaion Öcalani, “traizio” eta “terrorismo” karguekin. Sententzia, alabaina, biziarteko kartzela-zigorrarekin ordezkatu zioten. Imrali izeneko irla batean betetzen ari da, Marmara itsasoan. Esan liteke buruzagi kurdua isolamendu estuan betetzen ari dela bere kondena: urte ugari pasa dira bere abokatuarekin bildu zen azken alditik, eta apenas jaso du bestelako bisitarik. Azkenak, hain zuzen, DEM alderdikideenak izan dira.

“AZKEN AUKERA”

Mundu osoan 40 milioi kurdu inguru daude, Irak, Iran, Sirian eta Turkiako mugek banatuta. Horietatik erdia An-

kararen kontrolpean bizi da. Turkiak errepresioz erantzun ohi die kurduen oinarrizko eskakizunei, hala nola nortasun kurduaren aitortzari, adierazpen-askatasunari eta beste berme demokratiko batzuei.

“Öcalanen azken gutuna 1993ko bake ekimenaren jarraipena da, Özal presidentearekin batera bultzaturikoa, alegia”, adierazi dio ARGIAri, Kurdistango mendietatik eta telefonoz, PKK-ko bozeramaile Zagros Hiwak. Bere hitzetan, Öcalan da, “edozein bake-ekimenetan”, negoziatzaile nagusia. “44 hilabete daramatza erabateko isolamenduan, eta basakeri horri amaiera eman behar zaio. Nelson Mandelak zioenez, bakea ezin da espetxetik gauzatu, eta preso dagoen pertsona batek ezin du lortu”, azpimarratu du Hiwak. Gerlariaren aburuz, “bakea lortzeko Ankararen azken aukera” izan daiteke honako hau.

“Hasiera batean, txeke zuri bat dirudi. Ez dakigu zer eskatzen duten desegitearen truke, beraz, espekulatu baino ezin dugu egin”. Dünnya Başol turkiar analista politikoaren hitzak dira. ARGIAri emandako elkarrizketan, adituak ez du aurreikusten inongo autonomia estatuisik kurduentzat. “Hizkuntza-eskubideak aitortzea, kultura-programak udaletxe



Une lasai bat Qamishlo hiriko emakumeen etxean, Rovajan.

kurduetan sartzea, mugimendu zibilen kontrako errepresioa amaitzea eta preso politikoak askatzea. Esango nuke hauexek direla Estatuak egin ditzakeen keinu nagusiak”, uste du Başölek. Hauek betetzekotan, Turkiako kurduak bizi izandako “unerik onenarekin” alderatu du analistak.

“Hein handi batean, 1960ko Turkiara itzuliko ginateke. Kurduak adierazpen-askatasun handiagoa zuten orduan, eta tentsioa askoz txikiagoa zen. 1971ko estatu-kolpeak amaiera bortitza eman zion egoerari, eta ez da hobetu ordutik”, damu da Başöl.

Espekulazioaren larre zabalean, Turkiako presidente Recep Tayip Erdoganek bultzatu nahi duen konstituzio erreforma ere aipatu berri da. Erdogan 2003an iritsi zen boterera, lehen ministroaren karguan. 2014an presidente bilakatu zen, eta bere boterea sendotu zuen 2017an egindako konstituzio erreformaren bidez. 2028ko hauteskundeean berriz lehiatu ahal izateko, beste konstituzio doikuntza bat ezinbestekoa du Erdoganek. Alderdi kurduaren bozkek beharko lituzke horretarako. Honela, babes parlamentarioa oraindik sekretua den bakerako bide-orrian egon liteke. Jakina da, nolani, azkoz puntu

“Hizkuntza-eskubideak aitortzea, kultura-programak udaletxe kurduetan sartzea, mugimendu zibilen kontrako errepresioa amaitzea eta preso politikoak askatzea. Esango nuke hauexek direla Estatuak egin ditzakeen keinu nagusiak”, uste du Başölek

gehiago ere egon badirela, Turkiatik haratago zabaltzen direnak ere tartean. Ez dezagun ahaztu lau estaturen mugek banatuta bizi direla kurduak. Paradoxa bada ere, populazio txikiena duen eskualdea, Siriakoa, hain zuzen, aktore nagusi bilakatu da azken hamarkadan.

SIRIAN ADOS?

Bere 26 urteko bakardadean, Abdullah Öcalanek idazteko denbora asko izan du espetxean. Berebiziko norabide aldake-

ta eman dio buruzagi presoak hastapenetan Estatu kurdu bat helburu nagusi zuen erakunde marxistari. “Konfederalismo demokratikoa” izeneko proiektua du ardatz orain: ez du Ekialde Hurbileko mapa eraldatu nahi, bai, ordea, gobernu dinamikak. Boterearen “atomizazioa” gauzatzearen, komuna dute bertako kurduak ezinbesteko organoa. Ez da kasualitatea konfederalismo demokratikoa anarkismoarekin maiz alderatu izana. Antza, Murray Bookchin pentsalari amerikarrarekin izandako korrespondentziak eragin handia izan omen du Öcalanen pentsamoldean. Zirkulu anarkistetan hainbat hamarkada eman ostean, estatubatuarrak deszentralizazioa abiapuntu duen proiektu berria garatu zuen. Öcalanek hura egokitu eta paper gainean jarri nahi, praktikara Siria ipar ekialdean eraman dute, 2012tik.

Egitasmoa Siria ipar ekialdeko kurduen jatorriko eskualdetik –Rojava izenez ezaguna dena– egungo Siria Ipar eta Ekialdeko Administrazio Autonomora zabaldu dute. Siriako %30 hartzen du eta bost milioi lagun bizi dira bertan, arabiarrek, armeniarrek eta asiriarrak tartean, kurduekin batera. Espero bezala, Turkiak ez du begi onez ikusi mugaz gaindiko ideologiaren zabalpena. Siria-



Gerlariak eta zibilak 2013ko Newroz festa elkarrekin ospatzen.

ko kurduen milizia armatua den Siriako Indar Demokratikoak (SDF) PKKren adarra direla argudiatuz, Ankarak hainbat lurralde okupatu ditu talde islamistei babesa emanez azken urteotan, eta ehunka milaka kurdu desplazatu ditu.

Zigortzeko joera hau ez da berria. Assad dinastiaren 50 urteko agintaldian zehar, Siriako kurduen garbiketa etnikoa burutzeko hamaika saiakera egin ziren. “Gerriko arabiarra” deitu zioten ehunka milaka kurdu Siriako mapatik desagerrarazteko egitasmo basatiari. 2011n, siriar hiritartasunik ez zuten milioi erdi bat kurdu zeudela kalkulatu da. Ipar ekialdean autogobernua eraikitzen hasi zirela, Erdoganek Assadtarren proiektu gaitzesgarria baino ez zuen berreskuratu.

Baina Ekialde Hurbileko azken aldaketek deus ez dela betirako gogorarazi digute. Öcalanen iragarpena argitaratu eta bi astera, akordio historiko baten berri izan dugu. Siriako presidente Ahmed al-Sharak eta SDFko komandante Mazloum Abdik Damaskon eszenifikatu dute herrialdea bateratu dezakeen bilkura. Su-etena dago biek adostutako zortzi puntuen artean, baita segurtasuna bermatzen duten beste eskaera batzuk ere, hots, SDFren integrazioa Siriako Armadan, edota desplazatu kurduen etxera bueltatzeko eskubidea. Harri-dura handiena sortu duena, baina, Siria-

ko instituzioekin bat egiteko kurduen konpromisoa dugu. Autogobernuari uko egingo al diote? Konfederalismo demokratikoa amaitutzat eman dezakegu, beraz? Oraingoan ere, eragile nagusiengana jo dugu erantzun bila.

Batasun Demokratikoaren Alderdia (PYD) da nagusi Siriako ipar-ekialdean. Haren presidentetzako kide Salih Muslimekin hitz egin du ARGIAk. “Autogobernua galtzea baino, esango nuke Siriako Estatuan bazkideak garela bere administrazioan edota konstituzioan, ekonomian, egunekoko bizitzan... alderdi guztietan”, diosku kurduen iraultzaren aurpegi ezaguna den Muslimek. Akordioak herri honen “hiritartasuna eta konstituzio eskubideak” onartu arren, ez du adierazten ea kultura eta hizkuntza babestuko diren. Herrialdeak Siriako Arabiar Errepublika mantentzen du izen ofiziala oraindik, eta honek panarabismoaren itzala hauspotzen du askorentzat. Kurduak ere badira Sirian, baita arabiarrek ez diren beste hainbat herri ere.

“Alde horretan ere ez da ezer aldatuko. 2012tik eraiki dugun hezkuntza sisteman kurdueraren presentzia bermatuko dugu, haurtzaindegitik unibertsitate-raino”, baieztatu du buruzagiak. Beste aldaera batzuk, alabaina, ez daude bere herriaren esku. “Ez dakigu AEBetako tropek gure lurraldean jarraituko du-

ten. Estatu Islamikoaren (EI) kontrako misiopean bertaratu ziren, eta beraiek baino ez dakite lana bukatutzat eman dezaketen ala ez. Edonola, guk Elren kontrako operazioak burutzen jarraitzen dugu”.

Estatubatuarrena ez da, inondik ere, inkognita bakarra. Akordioa sinatu arren, etengabeak dira kurduen kontrako eraso jihadistak, haietako asko Damaskoko gobernu berriarekin bat egin duten taldeen eskutik. Muslimek dio “ilegaltzat” hartuko direla honako hauek, eta haien kontra borrokatzeko “estrategia amankomunari” utsiko zaiola.

Buruzagiak honela laburbildu du prozesua: “Orain elkarrekin esertzeko parada dugu, edozein aldaketa egin aurretik dena xehetasunez eta denboraz eztabaibatzen”. Agendan dauden zortzi puntuak betetzeko urtebeteko epea adostu dute alde biek. Modu xumean bada ere, Ankarak ontzat eman du AEBen bultzada izan duen Siriako akordioa.

1993 GOGOAN

Itxaropena edota hondamendia iragaritzen duten gertakizun historikoak abidura bizian kateatzen ari dira berriki. Analistek nekez eusten diote albisteen sekuentziari, eta hau ulertu orduko paradigma alda daiteke, erraz. Edota kazetariok bidalitako erreportajea zaharkitu,



LANDER ARBELAITZ

“APO” deitzen diote Öcalan-i, osaba esan nahi du. Irudian bere askatasuna eskatuz Ipar Kurdistango hiriburu Amed-en eginiko margoketa bat.

paperera iritsi baino lehen. Momentuz, bat datoz nazioarteko adituak: Siriako itunak lotura zuzena du Turkiako bake prozesuarekin.

Ankarak babesturiko talde aliatuek Damasko mendean hartu ostean, Turkia Ekialde Hurbileko potentzia nagusi bilakatu da. Hala bada, zein interes eduki dezake Erdoganek kurduer ezer eskaintzeko?

PKKren mendiko gotorlekutik, Zagros Hiwak zalantzan jarri nahi du Turkiaren ustezko indarra. “Turkiaren politiken ondorioz, hondamendia da nagusi Sirian. Estatu Islamikoa eta Al Qaedaekin lotura duten hamaika talde daude, eta hori ezegonkortasun iturri hutsa da. Anabasa erraz zabaldu daiteke Turkiara. Eta ez dezagun ahaztu milioika siriarr errefuxiatu daudela oraindik Ankararen ardurapean”, diosku Hiwak, Turkia “siriarr putzuan” ito litekeela gaineratu aurretik.

Washingtongo Kurdistango Bake Institutuko ikertzaile Kamal Chomanik antzeko irakurketa egiten du. “Turkia, 2015ean baino indar militar handiagoa izan arren, biziki ahulago dago arlo ekonomiko nahiz sozialean. Bestalde, esango nuke Siriako presidente berria Saudi Arabiarantz gerturatuko dela, eta ez Turkiarantz. Al Sharak lotura estuak ditu Riadekin, eta jakina da saudiek interes handiak dauzkatela Sirian, baita

diru asko ere hauek lortu ahal izateko”, azaldu dio Chomanik ARGIAri.

Adituaren ustez, Ekialde Hurbila “azkar eta etengabe birsortzen ari denean” iritsi da PKKren elkarrizketarako gonbita. Eskualdeko ohiko ardatzak eraldatu heinean, kurduen auzia «Turkiak baztertu ezin dezakeen nazioarteko gai” bihurtu dela dio Chomanik.

“Bai Öcalan bai Turkiako Estatuak jabetu dira eskualdeko aldaketei batera erantzun behar dietela. Hori da, hain justu, Turkiak aurrera egiteko duen modu bakarra. Inork irabazi ezin dezakeen gerra dugu beste aukera, alde biei etengabeko sufrimendua ekarriko diena”, uste du Chomanik. Talde armatuaren “estrategia berri” batez ere mintzo da. “Horretarako baldintzak eta bermeak izatekotan, PKK armak uzteko prest dago borroka politikoari eusteko. Özal-en 1993ko ekimena arrakastatsua izan balitz, gerrillak pauso hura orduan emango zukeen”.

Öcalanen azken agerraldia dela eta, “sentimendu kontrajarriak” aitortu ditu aditu kurduak. Aurrekariak pesimismo-rantz bultzatzen dutela dio; zaharrak-berri direlako sentsazioa “ia gaindiezina” egiten zaiola. “Nolanahi, nola etsi bakea lortzeko aukera berri baten aurrean?”, bota du. Baliteke milioika kurduk horretarako eskubiderik ere ez izatea une honetan. ●

DATU PERTSONALEN BABESA EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com



Koop
mitxelena

MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak



Ezizgi Industrialdea 21, HERNANI

☎ 943 55 25 12 - 16

✉ info@talleresmitxelena.eus

🌐 www.talleresmitxelena.eus

“ ”

Etorkizuneko etnografoek sakelekoen bilakaera aztertuko dute akaso

Maite Errarte

Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia Sailaren zuzendari berria da Maite Errarte Zurutuza (Beasain, 1995), urrian Fermin Leizaolaren lekukoa hartu ondoren. Kultura materiala aztertzen jarraitzeko beharra azpimarratu du, gizartearen memoria eta bizimodu aldaketak erregistratzeko baliabide gisa.

 JOSU NARBARTE HERNANDEZ  IBAI ARRIETA / ARGIA CC-BY-SA

Aranzadik Bidebietako institutu zaharrean daukan Etnografia Laborategian egin dugu hitzordua, Donostian. Hainbat gela daude bertan etnografia-lanerako egokituta: kaxaz betetako biltegiak; taile-rrak, mahai gainean hainbat motatako objektuak dituztela; kudeaketa-lanetarako bulegoa, eta abar. Proiektu ugarian murgilduta dabil saila, gizartearen ondarearen inguruko ardura bat badagoen adierazle.

Zertarako behar dugu etnografia egungo mundu postindustrialean?

Gizartearen memoria jasotzeko. Bizimoduak asko aldatu dira Industria Iraultzaz geroztik, eta aldaketa horien abiadura hazi baino ez da egin azken mende erdian. Hori aztertzea eta beren testuinguruan kokatzea da etnografiaren lana, gizartearen kultur jokabideak ezagutu eta ulertzeko.

Eta nola egiten da hori?

Informazio-iturri desberdinak erabiltzen dira: ahozko lekukotasunak, toki-izenak, kultura materiala, eta abar. Gure kasuan, kultura materialaren biltzea, ikertzea eta dibulгатzea izan da beti Aranzadiko Etnografia Sailaren identitate-marka, horretan espezializatu gara.

Egunero erabiltzen ditugun objektuetan jartzen duzue arreta.

Batzuetan ez gara ohartzen, baina objektuek gauza asko esaten dituzte guri buruz: zer eta nola kontsumitzen dugun, zeri ematen diogun balioa eta zeri ez, nola kudeatzen ditugun hondakinak... Gainera, objektuek historia liburuetan agertzen ez den jendeari buruz hitz egiten digute, jende xumeari buruz.

Adibide bat jarriko dizut: laborategi honetan, mota desberdinetako sagar-

do-botilen kortxoak katalogatu ditugu, tipologiaren arabera sailkatuta. Euskal Herriko sagardogintzaren historiaren zati bat dago hor gordeta, sektore ekonomiko bat, jarduera sozial bat, eta kultur balio batzuk.

Zer erakusten dute sagardo-botilen kortxoek ba?

Ikus dezakegu botila zaharretan kortxo naturalak erabiltzen zirela, artisauek. Gero prentsaturako konglomeratuak sartu ziren; eta azken urteetan plastikozko tapoiak nagusitu dira. Dagoeneko ez dugu labanarekin ibili behar kortxoari atzean zuloa egiten, botilak arnasa har dezan. Egungo bizimoduaren isla da hori: dena pentsatuta dago ahalik eta denbora gutxien galtzeko. Dena ergonomikoa, praktikoa, erraza izatea nahi dugu.



Noiz iritsi zinen zu Aranzadira?

2014an izan zen, 19 urte nituela. Historia ikasketak egiten ari nintzen EHUn, Gasteizen. Ikaskide batek, Manex Arrastoak, proposatu zigun Aranzadik udan antolatzen dituen auzolandegietan izena ematea, eta Saseta defentsa-sistemako lubakiak industen aritu nintzen uztai-lean, beste hainbat ikaskiderekin batera. Indusketa horretan Haizea Bravo genuen koordinatzaile, eta abuztuan Amaiurreko aztarnategian industera joatera animatu gintuen.

Uda horretan murgiltze-esperientzia izan zenuen, beraz...

Bai, erabat! Azken finean, auzolandegi horietan zure adin inguruko jendea ezagutzen duzu, zure antzeko interesak dituen, gustuko lanean aritzen zara... eta engantxatu egiten zaitu. Hurrengo

“ ”

Objektuek historia liburuetan agertzen ez den jendeari buruz hitz egiten digute, jende xumeari buruz

urtean berriro itzuli nintzen, eta handik aurrera urtero. Lagun handiak egin nituen Aranzadiko auzolandegietan.

Eta arkeologiatik etnografiarako saltoa, nola egin zenuen?

2018an izan zen. Ordurako induske-

ta desberdinetatik ezagutzen nuen Aranzadiko Etnografia Sailean ari zen Suberri Matelo, gaur egun nire lankidea dena. Urte batzuk lehenago beka bat emana zioten Gordailuaren (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Bildumen Zentroa) etnografia alorrean prestakuntza egiteko, eta berak kontutako esperientziatik konturatu nintzen arlo hori gustuko izan nezakeela. Ni ere bekarako deialdira aurkeztu eta zortzi hilabetez Gordailuko etnografia teknikari den Xabier Kerexetaren alboan ikasten aritzeko aukera izan nuen. Gordailuko etnografia-bildumen fitxa katalogafikoak osatzen eta berrikusten aritu ondoren, euskal kutzak ikertzen zentratu nintzen. Praktikal-dia bukatzean, Aranzadiko Etnografia Sailera gerturatzen hasi nintzen ia konturatzera.

Aranzadi bazuen, ordurako, ibilbide luze bat Etnografiaren arloan.

Etnografia Saila 1947an sortu zen, elkar-tea sortzearekin batera. Joxemiel Barandiaranek eman zion bultzada, garai bateko bizimoduak aztertu eta ondareari buruzko eztabaidak zabaltzeko. Hainbat egitasmo burutu ziren gerora: urteroko Etnografia Jardunaldiak, Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoa edota Zaharkinak erakusketa-zikloa, adibidez.

Bide horretan, Fermin Leizaola izan da erreferente nagusietako bat, ezta?

Dudarik gabe. 45 urte baino gehiago eman ditu saileko zuzendari lanetan; nik uste berak ere kontua galduta izango duela. 1950eko hamarkadan hasi zen, eta kurioz bada ere espeleologia arloan egin zituen lehen urratsak. Baina, mendian ibilita, han aurkitu zituen artzainen eta baserritarren bizimodu tradizionalak desagertzeaz zeudela ohartu zen, eta horrekin batera jakintza izugarria galtzeko arriskuan zegoela. Hor erabaki zuen ikerketa etnografikoan bete-betean sartzea.

Berak osatutako bilduma katalogatzea izan zen zure lehen lana.

Hala da. Hamarkada hauetan guztietan, ia 5.000 objektuz osatutako bilduma etnografikoa osatzen joan da, mota guztietako lekukotzak bilduta: goldeak eta uztarriak bezalako baserriko lan-tresnak, baina baita bestelako ofizio tradizionalekin edo egunerokotasunarekin loturiko objektuak ere; lehen aipatu di-

“ ”

Gure kasuan, agian, etengabe aldatzen ari den bizimodu aktualago eta azkarrago bati lotutako elementuek sortzen digute nostalgia edo kezka

tugun kortxoak bere bildumaren parte dira. 2019an, bilduma horren dohaintza egin zion Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gordailura eramateko; baina bidean, objektu horiek guztiak Euskal Herriko ikasle gazteak eta ondarearekiko interesa duen jendea formatzeko baliabide gisa erabili nahi izan ditu. Orduetik, bilduma horrekin aritu gara lanean.

Horrela sortu zen Etnografia Laborategia?

Suberri Matelok eta biok hartu genuen Ferminen bilduma kudeatzeko ardura, Ferminen berarekin batera. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin, Donostiako Udalarekin eta Bidebieta BHIko zuzendaritzarekin beharrezko kudeaketak eta hitzarmenak egin ondoren, eraikin honetako zenbait espazio utzi zizkiguten, eta guk gure beharretara egokitu eta hornitu dugu.

Lanerako aukera berriak zabaldu zaizkigu, Aranzadiren Zorroagako egoitzan ez baitugu tokirik material hau guztia kudeatzeko.

Zer lan egiten duzue hemen?

Ondare material guzti horretatik eratorritako lanak. Alde batetik, biltegi moduan erabiltzen dugu: Ferminen bilduma hemen gorde izan dugu, katalogatu eta Gordailura eraman bitartean. Gainera, dohaintzak ere jasotzen ditugu eta elkartean dugun ondare etnografikoa ere hemen kudeatzen dugu. Bestetik, tailer bezala ere erabiltzen dugu: objektuen garbitzea, tratamendua, katalogatzea eta ikerketa hemen egiten ditugu, eta beste toki batzuetan erakusketak egin behar izan ditugunean, hemen prestatzen dugu materiala.

Belaunaldi berria zarete. Horrek badu eraginik etnografia ulertzeko moduan?

Metodologia aldetik, gure formazioak asko zor dio aurreko belaunaldiari. Guk Ferminen ikasi dugu materialak sailkatzen, inbentarioak egiten... Baina, aztergaiari dagokionez, egia da gure interesak apur bat diferenteak izan daitezkeela. Pentsatu behar da objektu etnografikoen bilketa nostalgiari lotuta dagoela neurri handi batean; Ferminen izaera eta garai guztietako objektuak gorde ditu, baina uste dut adibidez baserriko lanabesak biltzeko bereziki lan handia egin duela, objektu horiei zentzua ematen zion bizimodu tradizionala





“ ”

Pentsatu nahi nuke espazio honek lagunduko duela ondarearen inguruko bokazioak sortzen, hausnarketak sustatzen eta memoria partekatutak eraikitzen

desagertzen ari zela ikusi zuelako eta horrek arduratzen zuelako. Gure kasuan, agian, etengabe aldatzen ari den bizimodu aktualago eta azkarrago bati lotutako beste elementu batzuek sortzen digute nostalgia edo kezka hori: haurrak ginela hainbat gauza ikusten genituen, eta dagoeneko ez.

Adibidez?

Tira, hemen laborategian baditugu zenbait adibide: kaseteak, bonbillak, pilak... Horien adibideak jaso ezean, erabiltzen genituen objektu horien memoria desagertu egingo da. Etorkizuneko etnografoek sakeleko telefonoen bilakaera aztertuko dute akaso.

Bi langile aritzen zarete modu egonkorrean baina, horrez gain, nor gehiago pasatzen da hemendik?

EHUko Antropologia Graduko ikasleak jasotzen ditugu urtero, praktikak egiteko. Ferminak, Suberrik eta hiruok instruktore lanak egiten ditugu, eta ikasleek Ferminen bildumaren gainean lan egin izan dute. Bildumaren sortzailearekin lanean aritzea eta bere azalpenak entzun ahal izatea materiala bertatik bertara daukazula... pentsa ze luxua!



Gainera, ostiralero biltzen den bolutario-talde bat sortu dugu. Gehienak Aranzadiko bazkideak dira eta, askotariko profila dauden arren, guztiek dute ondarearekiko kezka bat. Aranzadiren bilduma etnografiko propioa katalogatzen laguntzen digute, eta atsedenerako tarte ere izaten dugu, kafe batekin hainbat gairen inguruan eztabaidatzeko. Zoragarriak dira.

Eta eskola-taldeen bisitak jaso edota gu geu ere joan izan gara eskoletara, ondarearen eta etnografiaren inguruko

tailerrak eskaintzeko. Eskaera desberdinetara egokitu izan gara, adinaren eta talde-motaren arabera.

Hasiera batean pentsa litekeena baino jende gehiago beraz...

Nik uste topagune polit bat sortu dugula ondare etnografikoaren inguruan. Pentsatu nahiko nuke espazio honek lagun dezakeela ondarearen inguruko bokazioei bidea ematen, hausnarketa sustatzen eta memoria partekatutak eraikitzen. Polita da horrelako komunitate baten parte izatea. ●

Bizi Baratzea Orria

ARGIAk abiatu duen aldizkari berria, Bizi Baratzea proiektuaren 10. urteurrenean

Urtaro bakoitzean kaleratuko den aldizkari honek Lurrari buruzko jakintza praktikoa eta gaurkotasuneko gaiak jorratuko ditu. Formato oso berezia du: plegatutako orri handi bat da eta zabaldu ahala poster handi bat agertuko zaigu barnean. ARGIAk sostengatzen du Bizi Baratzea proiektua eta aldizkari honekin aukera zabaldu da herritarrak zuzenean proiektu honetako kide izateko: eginbizibaratzea.eus

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Lurrari begiratzen diogun naturzaleek eta landarezainek badugu orain urtaro bakoitzean papelean gozatzeko aldizkari berria: *Bizi Baratzea Orria*. Hosto hau ez da egun batetik bestera zuhaitzetik erori: aurtun 10 urte betetzen dira ARGIAk Bizi Baratzea proiektuari ekin zionetik, eta 39. orriko koadroan irakur daiteke hamarkada honetan egin den bidea. Milaka herritarrek irakurtzen dituzte Bizi Baratzearen edukiak, bai e-postan jasotzen duten buletinaren bidez, webgunea sartuta edo Telegram kanaletik. Eta milaka herritarrek dute etxean Bizi Baratzeako libururen bat. Komunitate horri Lurrari buruzko edukiak paperezko euskarrian eman nahi dizkio Bizi Bara-

tzeak: Lurraren jakintzarekin eta honen inguruan landu izan den kulturarekin eguneroko bizitza ahalik gozagarrien izan dakigun, eta etorkizunera begira Lur bizigarriago bat ereiteko pozez.

Bizi Baratzea proiektua ARGIA komunitateak eusten du, eta Bizi Baratzeak argitaratzen dituen liburuen bidez eta gainerako ekintzen bidez lortzen dituen diru-sarrerak ARGIA proiektura itzultzen ditu. Horregatik, ARGIAkoek astekariarekin batera doan jasoko dute urtaro-ka zabalduko den aldizkari berri hau. Eta aldi berean, *Bizi Baratzea Orriak* aukera ematen dio orain arte ARGIAkoa egin ez denari komunitatera batzeko: nahi duenak zuzenean ARGIAkoa eginda –modu horretan ARGIA astekaria eta gainera-

ko edukiak ere jasoko lituzke-, eta nahi duenak Bizi Baratzea komunitatera bakarrik batuta. Kidetza mota bat zein bestea egiteko, aski da eginbizibaratzea.eus webgunean sartzea edo komunitatea@bizibaratzea.eus helbidera idaztea. Martxoaren 10eko astean jarri dugu martxan kanpaina eta hasieratik izan du harrera beroa: 38. eta 39. orrietan irakur daitezke kide egin diren lehenetariko batzuek adierazi dituzten motiboak.

ZER EKARRIKO DU BIZI BARATZEA ORRIAK?

Urtaroa hastearekin batera iritsiko da etxera *Bizi Baratzea Orria*. Formatu berezia duela esan dugu, eta ez dizugu sorpresa zapuztuko, soilik esango dizugu



Bizi Baratzea Orriaren lehen zenbakiaren azala, udaberrikoa. Ione Larrañagaren ilustrazioan ikus daiteke intsekturik gabeko mundu baten eta intsektuek polinizatzen duten udaberriaren arteko kontrastea.

euskaraz –eta beste hizkuntzetan ere larri ibili–orain artean ez duzula horrelakorik esku artean izan. Lehen aldizkaria udaberriari dagokiona izango da eta martxoaren 30eko astean zabalduko da. Aldizkariaren azala urtero ilustratzaile batek egingo du, horrela, autore baten lau urtaroak jasoko ditugu urtero eta denborarekin autore anitzen urtaroen bilduma izango dugu. Aurtengo lau urtaroak Ione Larrañaga Gorritxok ilustratuko ditu azalean. Ilustratzaileei urtaro horretan aldizkarian landuko diren gaien berri emango zaie baina haien hautu librea da marrazterakoan gai horiei heldu edo ez.

Bizi Baratzea Orriak aukera ematen du kide berriak komunitatera batzeko: nahi duenak ARGIAkoa eginda eta nahi duenak *Bizi Baratzeakoa* eginda

Aldizkaria zabaldua, urtaro horretan egin beharreko lanak azalduko dizkigute alor bakoitzeko adituek. Ilargiaren arabera baratzean egin daitekeenaz idatziko du Jakoba Errekondok, basoan egin daitekeenaz Markel Arriolabengoak, sendabellarrekin zer egin daitekeen Garbiñe Larreak eta haziekin zer egin daitekeen *Kelo* Arribasek.

Hurrengo orrietan aurkituko ditugu garaian garaiko gaiei buruzko datuak, elkarrizketak eta artikuluak, ilustrazio eta argazkiekin jantzita eta hamaika erreferentziarekin konbinatuta: berretsoak, esaera zaharrak, kultur ekoizpe-

Zergatik egin zara Bizi Baratzea komunitateko kide?

“Lan bikaina egiten duzuelako, segi holaxe! jakintza askatasuna da”

Olaia, Eibartik

“Jakintza hori partekatzea eta zabaltzea ezinbestekoa ikusten dut Lurra bizirik mantentzeko. Ikasteko iturri oso fidagarria da Bizi Baratzea.

Zalantzak argitzeko zein parteak jasotzeko egiten den tutorizazio lana bikaina da.

Orain arte izan dudan esperientzia Bizi Baratzea dela eta, guztiz gomendagarria da”

Rosa, Maruri-Jatabetik

“Galdu behar ez litzatekeen herri-jakintza garatzeko eta mantentzeko lan eskerga egiten duelako”

Ibai, Ametzaga-Zuaitik

“Informazio ederra errazten duzuelako”

Gorka, Zaratamotik



Bizi Baratzea Orriak barruan posterra izango du. Hauxe da lehenengoa, polinizazioari buruzkoa. Jakoba Errekondok (testuak) eta Ione Larrañagak (irudia) elkarlanean egina da.

nak... Oraingoan, zelaietan ile moztu berriekin luzitzen duten ardiak moztaila den Joseba Attard-i egindako elkarrizketa aurkituko dugu, baita artilearekin koltxoia egiten dituzten Sarako lletegia proiektuaren berri ere. Bestalde, intsektuak agertuko zaizkigu nonahi: Mattin Jauregi erlezainak azaldu ditu erle eztingileak bizirauteko dituen komeriak eta *Planeta Isila* liburuaren bidez intsektuen galeraren dimentsioaz ohartuko gara.

Aldizkariak bere barruan poster handi bat izango dugu urtaro bakoitzean – esan eta esan ari gataizkizu, formatu berezia duela...-. Lehen aldizkari honetan polinizazioa da posterraren gaia: Jakoba Errekondok azaldu du testuetan zehatz-

mehatz eta Ione Larrañagak xehetasun maila berean egin du ilustrazioa.

Bizi Baratzearen Orria bizidun batek itxiko du urtaro bakoitzean. Kasu honetan, udaberriarekin lotzen dugun hegaztia izango da protagonista, azken orritik "agur" esan beharrean "hemen nago"ka ari zaiguna.

ARGIAko kide estimatua, zure ekarpenari esker eusten den Bizi Baratzea proiektuaren azken fruitu honekin gozatzea desio dizugu. Eta oraindik pausoa eman ez duzun horrek, hementxe duzu aukera: batu Lurrari begiratzen diogun komunitatera, ARGIAkoa edo Bizi Baratzeakoa eginda. Urtaro askoan irakur dezagula ingurua elkarrekin!



Ane Arzelusek egindakoa da *Bizi Baratzea Orria* jasotzera dei egiten duen ilustrazioa.

Hamar urte, bete beteak

Herri-baratzeak bogan zeudela eta gazteak burujabetza klabeen baratzean hasi zirela ikusita, 1995etik ARGIA n astero artikulua argitaratzen duen Jakoba Errekondori enkargu eman zitzaion ea liburuxkatxo bat idatziko ote zuen, hasi nahi zutenentzat lagungarri. Eta eskarmentudunei ere ekarpena egingo zien liburutzarrarekin etorri zen erredakziora. Kaleratu orduko lurrikara eragin zuen *Bizi Baratzea* liburuak, eta ARGIAk eta Jakoba Errekondok proiektu egonkor bat abiatzearen aldeko apustua egin zuten. Geroztik, Lurrari buruzko jakintza dibulgatzeko askotariko bideak jorratu ditu Bizi Baratzeak, betiere naturarekin errespetuzkoa den laborantza ereduaren markoan: hamar urteotan jarraibide praktikoak ematen dituen sei liburu argitaratu ditu, besteak beste, Jakoba Errekondoren *Bizi Baratzea* eta *Etxeko Landareak*, Garbiñe Larrearen *Sendabelarrek dakitena*, *Sendabelar baratzea* eta *Kosmetikoak* eta Miguel Arribas *Kelo* eta Marc Badalen *Haziak*. Bestelako literatur generoetako hiru liburu ere argitaratu ditu: hainbat ilustratzailearen artean egindako *Altza porru* komiki liburua, *111* Jakoba Errekondoren ARGIAko artikulua bilduma eta Josebe Blancoren *Hausnarrean* egunerokoa.

Proiektua abiatu orduko, ARGIA astelehen Jakoba Errekondoren ondoko orrian Garazi Zabaletaren *Baratzetik mundura* saila abiatu genuen, eta geroztik astero ekartzen du Euskal Herriko esperientzia baten berri. 2023an urtean kolaborazio sarea zabaltzea erabaki genuen eta ARGIA astelehen Bizi Baratzearen atala lau orritara handitzea. Orri horietako bat *A ze fauna!* da, sei biologok txandaka Euskal Herriko animalia bana aurkeztuz idazten dutena.

Eta ikus-entzunezkoan ere lantzen ditugu edukiak: Eli Pagola eta Mattin Jauregi *Egonarria* saioaren hirugarren denboraldia egiten ari dira eta Garbiñe Larrea bigarren urtez ari da *Menda Bikoitza* podcasta egiten.

Proiektuari ekin orduko martxan jarri zen beste ildo bat *Ilargia eta Landareak* agenda izan zen, urtero Jakoba Errekondok eta Antton Olariagak ondu dutena. Ilargiaren kokapenaren arabera astez aste egin beharreko lanak azaltzen ditu, bai baratzean, bai basoan, lore-baratzean eta fruta arboletan. Webgunea 2016an jarri genuen martxan, eta bertan aurkituko du herritarrek doan eta libre, beste gauza askoren artean, astean asteko lanen berri, ARGIA astelehen Bizi Baratzea saileko artikuluen bilduma, liburuetan argitaratu izan dugun edukia, Jakoba Errekondori galderak egiteko aukera, ARGIAko Ingurumen ataleko albisteak... 2016an ekin genion astelehen goizetan buletina bidaltzeari eta egun 10.500 herritarrek jasotzen dute. Eta 2023an abiatu genuen Telegram kanala: egunero sasoi horretan egin daitekeen lan berezi bat bidaltzen da eta egun 2.884 pertsonak jasotzen dute.

Lehen sektorearekiko harremanak ere landu dira urte hauetan: horren erakusgarri dira, Alkartasuna kooperatibarekin eta Biolur elkartearekin lankidetzan ateratzen den *Ilargiaren Egutegia*, agroekologia mugimenduarekin elkarlanean ateratzen ditugun Lurra Herriari Deika kamisetak eta ARGIA Biolurren Amillubi proiektuko kide izatea.

Horiek guztiak dira herritarrek Lurrari buruzko ezagutza eskuratzeko Bizi Baratzean dituzten aukerak, eta ekarpen ekonomikoa egiten duenak proiektu hau bere osotasunean bultzatzen du. ●

“Aitak ereindako hazia ereiten jarraitu nahi dudalako, neronek landatutako uzta jaso nahi dudalako, eta jakintza gutxi dudanez, badakidalako Bizi Baratzeak asko lagunduko didala, gaur egun ere liburua da nire euskarri nagusienetako bat”

Onintza, Ibarrik

“Gaia interesatzen zaidalako. Biokulturaren alde nagoelako arlo guztietan.

Bizi Baratzeako taldea eta lana bultzatu nahi ditudalako”

Arantza, Sondikatik

“Edukiak oso interesgarriak zaizkit eta ez ditut beste inon topatzen (eduki eta hizkuntza aldetik)”

Aitor, Tolosatik

“Interesgarria iruditzen zaidalako naturarekiko harreman modu hori indartzea”

J. Inazio, Durangotik

“Bizi Baratzea tresna oso lagungarria egiten zait nire egunerokoa, naturarekiko jakinduria sakondu eta lurrarekin daukadan konexioa sendotzeko”

Laura, Debatik

DIRU-ITURRIEN BILERA



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Sosaz ere hitz egin behar da

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Zer litzateke kazetaritza administraririk gabe. Kazetariaren lana ederra da, interesgarria, ezinbestekoa gizarte kritiko bat izateko, esango nuke; baina hedabide bat ez da soilik erredakzio taldea, atzeko lan handia dago eta administrari, idazkari, komertzial, banatzaile eta abarrik gabe jai dago. ARGIA komunikazio proiektuak ere baditu bere "ahaztuak" eta egiten duten lana ekarri nahi dizuegu lehen lerroa.

Aurreko astekarian erredakzio-bileren funtzionamendua azalduta, gaur 'Diru-iturriak' deituari tokatzen zaio. ARGIAko langile guztiak, edo erredakzio taldean edo 'Diru iturrietan' daude. Azken hori erredakzioa bezain sekzio garrantzitsua da, ARGIAk biziraungo badu. Noski, komunikazioa da enborra, kazetaritza, baina talde honetan elkarrekin dira ARGIAk dituen dibertsifikazio lerroak (Azoka, Bizi Baratzea eta Pro-


duktua taldea, zeinak *Egutegia*, *Gakoak* eta hainbat liburu berri kudeatzen dituen), harpidetza, komertzial, idazkari, administrari eta banaketa taldea. Hasteke, informazioa denek izan dezaten. ARGIA erabakiak ez dira iristen goitik behera; esandakoa egin eta kito. Ez. Sistema horizontal batek lan egiteko beste formula batzuk eskatzen ditu, askotan aipatu ditugun lantaldeak, informazioa ere modu horizontalean kudeatu, denen artean hausnartu proiektu osoaren norabidea eta erabaki enpresa estratejia bateratu bat. Kazetaritza haragoko lanak, erredakzio bileretan aipatzeko lekuri ez dutenak, baina nonbait eztabaidatu beharrekoak. Hortik 'Diru-iturriak'. Bertan hitz egiten dute lantalde bakoitza zertan den, Bizi Baratzea nola dabilen, ze asmo dituen, zer produktu berri duten batak eta besteak eskuartean, Azokan zer berri dagoen, banaketarekin arazorik badago nola

dabiltzan... Aportatzeko, laguntzeko, osatzeko, kontrastatzeko espazioa da.

GAI ESTRATEGIKOAK ETA PROIEKTUEN ERREPASOA ASTERO

Urtean zehar jorratu beharreko gai estratejikoak zehazten dituzte, datozen hilabeteetan horiek lantzeko. Izan liteke prezioen politika, argitaratutako liburuen egiletzetan hartu beharreko politika, banaketa sarean hurrengo urratsa... Ondoren egiten dute talde bakoitzaren errepaso eta asteroko jarraipen honekin ikuspegi globala lortzen du enpresa osoak, besteena ezagutu eta norberarena besteekin kontrastatuta. Eta jokoko pieza garrantzitsuek ere, administrariet, hartzen dute parte, erreportajeak idatzi eta proiektuetarako proposamenak egitea oso polita baita, baina benetan sosa kontrolatzen duenari ere entzun behar baitaio. ●

Benetako ninjek ez dute misteriorik



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Japonia, XV. mendea. Espioitzan eta hilketa ezkutuetan espezializatutako eliteko talde militarra sortu zen. Edo horixe uste du behintzat Stephen Turnbull historialari britainiarra. Beste aditu batzuen ustez, askoz lehenago sortu ziren ninjak, duela 2.300-2.500 urte inguru. Eta beste batzuek uste dute Heian Aroan (794-1185) hedatu zela ninjutsua, ninjek erabiltzen zituzten trebetasunen eta taktiken multzoa.

Azken hipotesi horren arabera, ninjak samuraiekin batera sortu ziren, IX. mende inguruan. 1868an errejimen feudalarren gainbehera arte, samuraien kasta Japoniako piramide sozialaren gailurrean egon zen. Eta ninjak samuraiak ziren; samurai ejertzitoaren barruko unitate espezializatua.

Nagusiki espioitza eta infiltrazio lanetan aritzen ziren. Ia beti itzalean aritzen ziren eta horrek misterioz eta liluraz inguratu ditu ninjak. Beltzez jantzita eta aurpegia estalita irudikatu dituzte, eta ahalmen magikoak erantsi dizkiete: ikusezinak izatea, uraren gainean ibiltzea, hegan egitea... Baina Daimyoka hiltzeko gazteluaren hormak ia hegan igotzen zituen gudari maskaratuaren arketipoa mito hutsa da.

Gehienetan ninjen lana informazioa biltzea, sabotaje ekintzaren bat egitea, zurrumurruak zabaltzea edo etsaiaren mugimenduak zaintzea mugatzen zen. Eta horretarako monjez, eskalez, nekazariz jazten ziren. Pertsona arruntez,



URAGAMA KUNISADA

alegia, hori baita jende artean nahasteko eta susmorik piztu gabe mugitzeko modurik eraginkorrena. Izar formako jaurtigailuak eta bestelako arma deigarriak erabiltzen irudikatu ditugu, baina arma praktikoa, soil eta ez-nabarmenak hobesten zituzten, maiz laborantzako lanabesak egokituta. Ninjen benetako trebezia ingurura egokitzean zetzan.

Orain arte *ninja* hitza aipatu arren, japonieraz eliteko talde honi *shinobino-mono* (edo, besterik gabe, *shinobi*)

esan izan zaio beti. Hitz hori lau *kanji* edo zienuk osatzen dute eta horietako bi irakurrita sortzen da *ninja* hitza. Mendebaldekoontzat *ninja* ahoskatzea errazagoa omen delako zabaldu da hitz hori.

Japoniak mendetan isolamendua bultzatu zuen eta Aro Garaikidean, nagusiki Bigarren Mundu Gerraren ondoren zabaldu zen mundura haien kultura. Eta Mendebaldeak, ohi duen moduan, nahi bezala moldatu zuen elementu askoren izena. Eta izana. ●



DORIEO

Estatua perfumatuak

Eskultura grekoerromatarrek bere garaian zuten itxurak ez du zerikusirik gaurkoarekin. Erabilitako materiala ez zuten bistan uzten. Orain badakigu kolore biziz margotzen zituztela eta jantziak eta apaingarriak ere eransten zizkietela. Bada, Cecilie Brøns Harvard unibertsitateko arkeologoak egindako ikerlan baten arabera, gainera, estatua

haiek perfumatu egiten zituzten. *Oxford Journal of Archeology* aldizkarian jaso duenez, eskultura batzuetan botatzen zikieten lurrinen, argizarien edo substantzia usaintsuen arrastoak topatu dituzte, baina nagusiki garai hartako testuetan oinarritu da ondorio horretara iristeko: Zizeron, Kalimako, Vitruvio, Plinio Zaharra... ●

KOMUNITATEAZ (II)



JOSEBE BLANCO

Susmoa dut komunitatea hustuketa prozesu betean dagoela, eta heldur naiz, beste askori gertatu eran, mamirik gabeko bilgarri ez ote den bilakatuko, jada bilakatu ez bada. Ikustea besterik ez dago, komunitatearen izaera holistikoa gero eta modu lausoagoan heletzen da, eta Che Guevararen aurpegia duten kamiseten antzera, edozeinek edozein modutan erabiltzen du.

Azken asteotan aztoratuta nauka komunitate-energetiko kontzeptuak. Liztorren bat nuen biraka, eta zast, heldu egin zidan orain dela pare bat aste.

Herrian izan genuen Urretxu-Ekiola energia-kooperatibaren aurkezpena. Dakizuenez, Mondragon Korporazioko kidea da Krean enpresa, eta honen eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) arteko lankidetzaren emaitza dira Ekiola proiektuak. Urretxuko Udala 2021ean batu zen Urretxu-Ekiola proiektura, eta Ezkio-Itsasoko Udala 2022an.

Urretxuko proiektuan beste protagonista bat ere azaltzen da: Repsol. Kreanek eta Repsolek, 2021ean, azken horren Madrilgo egoitzan sinatutako hitzarmenaren ondorioz sortu zuten Ekiluz. Helburuetako bat da herritarrak energia fotovoltaiakoaren ekoizpenean inplikatzeko. Bultzatzen dituzten proiektuek bat eta bost megavatt artean dituzte, eta kooperatiba izango da horien egitura formala. Helburua da kooperatibistek horrelako instalazioei lotutako ekonomiak baliatu ahal izatea eta instalazio horietan urteko kontsumo elektriko guztiaren baliokidea den energia-bolumena sortzea.

Ezin dut aipatu gabe utzi jada eraikitzen hasita dagoen proiektuaren kokapena. Izan ere, Beasain-Durango ardatza eraikitze-ko Deskarga aldean dagoen baserri baten lurrak desjabetu zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak, bertan autopista eraikitze-ko lanetan ateratako lurrak metatzeko.

Artifizializatutako lurrak omen, balio ekologikorik gabeak, beraz. Baliteke hasiera batean horrela izatea, baina badira sei urte larre soro gisara erabiltzen dela,

inguruko edozein larre bezain osasuntsu. Naturak, zorionez, bere bidea egin du eta urteotan bizitu da –naturak eta larratu diren inguruko baserriak behiek–. Pentsa, GFAk 40.000€ bideratu ditu plakez bete gabe geratzen den eremuan baratze komunitarioak egiteko aukera aztertze-ko. Hortaz, inbertsio hori egiterako, lur emankorrak direla onartu dute.

GFAk desjabetutako lur horiez gain, proiektuak Next Generation funtsetatik 1.159.643,87€ jaso ditu. Ekiola.com atarian azaltzen dutenez, Urretxukoa prestatuta dago 700 bat bazkide izateko –aurkezpenean 600 aipatu zituzten–, baina egun 130 lortu omen dituzte. Bazkide bakoitzak jarri beharko ditu 1.500€ eta 2.000€ artean –GFAko Ogasun Sailak %25eko kenkariak aplikatuko dizkie bazkideei–. Baliteke bazkide falta nabarmen horren arrazoietakoa bat proiektuan parte hartzeko ezarritako mugak izatea. Izan ere, pentsio, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo familia ugarietarako laguntzarik jasotzen bada, proiektuan parte ez hartzea gomendatzen dute; hain zuzen ere, energia premia handiena dutenak komunitatetik kanpo. Hala ere, proiektua aurrera doa, falta diren bazkideen hutsune ekonomikoa EEEEk estaliko duelako.

Egia esan, aurkezpenean harrigarria egin zitzaidan zer nolako babes maila publikoa lortu duen proiektuak; denona dena –eta hurrengoena beharko lukeena– nola pasatu den esku pribatuetara, hasi lurretatik eta bukatu proiektuaren beraren bideragarritasun ekonomikoa. Ez dut ezagutzen babes maila hori jaso duen inbertitzaileen seirena lortzeke duen proiekturik. Komunitate energetikoa bai, baina komunitateari xurgatu energiari esker.

Halaber, harritu ninduen zero kilometro kontzeptuaren erabilerak. Izan ere, ematen zuen han sortuko den elektrizitatea zuzenean joango dela bazkide horien etxetara eta argindarra sortu den tokitik gertuen daudenek ere kontsumitzen dute,



ez kooperatibako kideek bakarrik. Eta ez, hori Red Eléctrica de España enpresa pribatuak kudeatzen duen sarera joango da, sortzen den uanean bertan kontsumitzeko –beraz, gaueko kontsumoa ez du estaliko–, eta beste hamaika modutan eta lekutan ekoizten denarekin batera nahastuko da. Kontzeptuak berak badu beste ertz bitxi bat: Repsolen parte hartzea, merkaturatzeko orduan, Ekiluzen bitartez –izango ote da Repsolgo kontseiluko kide delegatua Zumarragan jaio zelako?–.

Puntu honetan, ez dut aipatu gabe utzi nahi azalpenean zehar Krean kooperatibako ordezkariak behin eta berriz esan zuela Goiener kooperatibari eskaini ziotela proiektuan parte hartzea eta ezezkoa eman zuela. Horrekin indartu nahi zuten Ekiluz –beraz, Repsolen presentzia– Goienerrek emandako ezezkoaren ondorioa zela, ez zutela beste erremediorik izan.

Aurkezpenean sentitutako ziztaden errea areagotu zen horrekin. Izan ere, Goienerreko bazkideak garenok jakin badakigu ekonomia sozial eta solidarioaren irizpideen arabera funtzionatzen dugula; eta irizpideok, kasu honetan aplikatuz gero, aukera bakarra zegoela: ezezkoa. Nola azaldu, bestela, 18.549 bazkideei baldintza horietan garatu den proiektuaren merkaturatze lana egitea? Zer dago Goienerren aipamen horren atzean? *Greenwashing* kontzeptuaren bertsio berria? *Socialwashing*, akaso?

Izenak, batzuetan, ez du izanarekin bat egiten; eta kooperatiba izaera juridikoak izateak ez du beti esan nahi erakundeak bizitza mantentzea eta hobetzea helburu duen bestelako sistema sozioekonomiko batera jo nahi duenik. Zenbaitetan ekonomia kapitalista legitimatzeko tresna baino ez da. Che Guevararen irudia daramaten kamisetak Jeff Bezosek ere saltzen ditu. ●

A ZE FAUNA!

KUTIXI EDO MOKADU,
GUZTION AHOTARAKO

ENEKO BACHILLER OTAMENDI
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Antxoa, bokarta edo albokartia, gure arrain komertzialen artean txikiena, euskal kostaldera hurbildu da. Getariar ahozko-ondareak erakutsi digu, bat datorrela kostaldeko akazia zuhaitzak loratzen hasten diren unearekin. Iluntzetan kostaldean argi mordoia pizten hasi da, azken hila-betetan tantaka ikusi dugun baxurako flota esnatu den seinale. Arrantza-ontziek argi horiekin erakarriko dituzte antxoak, ondoren inguraketa-sareekin sardak harrapatzeko. Izurdeek ere estimatzen dute halako bazka, baita itsas-hegaztiek ere (zangek, ubarroiek...). Egunotan inguruan ditugun berdelek, aukera izatekotan, bat edo beste irentsiko dute. Eta hauen guztien ahoetatik ihes egiterik izango balute, uda gerturatu ahala, hegaluzeak ere gerturatuko dira. Haiek ere jan behar baitute.

Bizkaiko Golkoan antxoaren errutegarai nagusia maiatz-ekain aldera izan ohi da. Egunez sarda txiki trinkoetan bilduko dira, itsas-hondotik gertu, harrapakariengandik babesteko. Ilunabarrarekin batera, emeak ur-azalera gerturatu eta, sakonera txikitik, arrautzak askatuko dituzte. Arrak, emeen azpian kokatuak, haien semena askatuz ernalduko dituzte itsasoan jitoan geratuko diren milioika arrautza horiek. Errutea egin eta berehala, inguru horretatik mugituko dira, kanibalismoa ekiditeko; izan ere, antxoak, harrapakin interesgarriak aurkitu eta ehizatu ezean, etengabe ahoa ireki eta ura zakatzetan zehar iragaziz elikatzen baitira.

Ugalketa frantziar nahiz kantauriar plataforma kontinental osoan zehar ematen da (200-250 metro inguruko sakoneran dagoen lautadan) eta batez ere,

Garona eta Aturri ibaien itsasadar parean. Horrela, larbak elikagai aberatseko ur-eremuetan jaioko dira, uhertasuna lagun, harrapakariengandik libratzeko. Hasierako hilabeteetan ur-korronteek kostaldetik urrundu eta sakabanatuko dituzte; beste batzuk plataforman geratuko dira. Kanpoaldeko eremu ozeanikoan nahiz ezponda kontinentalean (lehen aipatutako lautadaren amaieran zabaltzen den ur sakonagotarako amildegian) banatutako txitxin-ek (hala deitzen diete jubenei Lekeition) elikadura-baldintza egokiagoak izango dituzte harrapakin handiagoak aktiboki ehizatzeke; haien sabelak plataforman dauden gaztetxoak baino beteago egon ohi dira bederen. Edozein kasutan, gaztaro laburra izango dute. Jaio eta urtebetera, antxoa horiek jada heldu bilakatuko dira, arrautzak erruteko gai; urteko heldu berri kopuru horri errekrutamendu esaten zaio.

Antxoaren gehiegizko arrantzak eta hainbat urtetan jarraian pairatutako errekrutamendu baxuak populazioa kinka larrian utzi zuen 2005ean, eta bost urterako arrantza-debekua ekarri zuen; antxoa belaunaldi baten bizi-ziklo osoaren iraupenekoak, hain zuzen. Halako bizitza motza izateak alde txarrak dituen moduan, onak ere izan ditzake. Guztiok ikasi genuen: zainduz gero, naturak erantzuten du; eta antxoek ere bai. Hala ere, ikusteke dago aldaketa klimati-koak zer ekarriko ote duen; dagoeneko antxoak ohi baino lehen erruten hasiak dira, eta 2022an tetrabrik baten luzerako antxoak harrapatu ziren Xixonen,



ENEKO BACHILLER OTAMENDI

ANTXOA EDO BOKARTA

Engraulis encrasicolus

TALDEA: Ornoduna / Arraina.

NEURRIA: 15-20 cm.

NON BIZI DA? Ozeano Atlantikoko ekialdean (Europa eta Afrika ipar mendebaldeko kostaldean) eta Mediterraneoan.

ZER JATEN DU? Intsektuak.

BABES MAILA: Kopepodoak eta krill-a (zooplanktona). Bestelako larben moduko harrapakin handiagoak ere bai, banaka.

8 alek kiloa osatzen zutela (8 grano-ko antxoa esaten zaio). Pentsa, udaberrian 40-60 grano ingurukoa da hartutako "txikia"; 30-40-tik beherakoa, 'handia' (kontserberak bereziki estimatzen dutena); eta 90ekoa da arrantzaleentzat uztailetik aurrera ezarritako muga.

Neurriak neurri, ahalik eta freskoen hartu, goxoago. Eta sardinen kasuan bezala, ardorakoa (ilunabarrekkoa) baino, albakoa (egunsentikoa) oraindik ere hobe. Beraz baloratu dezagun, eta gozatu dezagun. Beti gogoan edukita, itsasoan badirela beste asko, antxoaren beste garai larri bat etortzekotan, guk baino eragin serioagoak pairatuko dituztenak. ●

MAGNOLIAN KAKALARDOA POLEN- MAMITAN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



JAKOBA ERREKONDO / ARGIA CC-BY-SA

Magnolia soulangeana loretan.

Magnoliak eleganteak dira. Doreak. Anddereak. Pontxoak. Apainak. Pimentak. Gurbilak. Ponposak, ponpoxearrenak. Ortiroak. Ia-ia fazazkoak, kriket eta kriket. Ez naiz harritzen, beren loraldien azpian lurrarekin urtzerainoko handitasunaren menpeko sentitzen naiz urtero.

Magnolia (*Magnolia spp.*) baten loraldia ezagutzen duzunean ez duzu berehalakoan ahaztuko. Begiak irentsiko dizkizu, bista jango eta ikuspegiak gabetzeraino hustuko zaitu. Ezagutzen duzun edertasun goiena areagotu baldin badaitke, magnoliak eramango zaitu, beste munduratuko zaitu eta seko sorgorra ez bazara jo eta lo utzi. Edertasun gutxi dago, eta landareen erreinuaz ari gara gero, edertasun gutxi dago magnoliarenaren tamainakoa, zeure buruaz zeu egiteko gai dena.

Magnoliak ugariak dira, erruz ugaritu ditugu. Milaka urtetako lorezainen barrenikarak eta bihotzetako erupzioak ez dira alferrikakoak izan, eta belaunaldiz belaunaldi hibridazioak eginez garraldi bikainak baliatu izan dituzte magnolia bat eta bestearen nahastekakoen emaitza gero eta ikusgarriagoak sortzeko. Eta, gero eta barietate edo kultibar gehiago dugunez, nahasketak egiteko aukera

gehiago: eta orduan eta loraldi oparogoko, eite bereziagoko, lore kolore deigarriagoko, lore tzarragoko eta frutausaintsuagoko, loraldi iraun luzeagoko magnolia berriak. Magnoliaren Nazioarteko Elkarteak argitaratua duen magnolia kultibarren zerrendan milatik gora azaltzen dira. Eromena. Denak etxerako modukoak. Nork egingo du magnolien lorategia? Landatu eta urte batzuk behar dituzte oparo loratzeko, baina gero urteetarako lore emana dute. Mila horiek landatzeko lursail handia behar, baina gero ekarria ere halakoa, bisitena soilik gizona litzateke.

Loredun landareetan lehenengoetakoak dira magnoliak. 100 milioi urtetik gora bizi dira dagoeneko. Dinosaurioak aurrean hartuta eraman zituen lurreko desmasiari aurre egin zioten, hostoei astindutxo bat eman eta adar muturrez aurrera. Erleak baino askoz lehenago sortu ziren eta polinizaziorako bektore edo bitarteko lagunak kakalardoak dituzte, haiek bezain zaharrak. Erleak ez bezala, kakalardoak ez ditu nektar lurrintsu gozoak erakartzen, bai ordea polenak. Loreko alor emea diren karpe loak polengile arren tankerakoak dituzte, polen ugariago bailegoke. Polena jaki nagusietakoa dute. Horrek baldintzatu

du magnolia-loreen ezaugarri nagusia: handiro berebiziko polen pila sortzen dute, mukuru-gaindika, eta, noski, kakalardoak polen-mamitan. Gauzez loreak itxi egiten dituzte: kakalardoak, polenetan ero, bertan harrapatuta geratzen dira. Goizez irekitzen diren arte, ederki poleneztatuta, hurrengo lorea bisitatzean erraz ernaltzeko. Kakalardo gaioak behatza eman eta magnoliak bihoztza hartu.

Magnolia izena Peire Manhol botaniko okzitaniarraren omenezkoa du, frantsesez Pierre Magnol esaten baitzioten. Manhol jaunak 2.000tik gora espezie berri deskribatu zituen, asko Pirinioetan, eta lehenengoz *Prodromus* obran landareen familiakako sailkaperako sistema bat proposatu zuen; egun sona eta loria guztiak harenganatu dizkiogun Linneok egindakoa baino lehenago. Zenbaiten arabera, Linneok berak jarri zizkien lehen-lehenengo familiari *Magnoliaceae* eta generoari *Magnolia* izenak bera baino lehenagoko sailkatzaileari. Egun ohikoak diren erlentzako loreen aurrekoak bere lorriaren aurrekoa merezi zuenari.

Atera kalera, parkera, eta adi magnoliei. Eta amainatu eta limurtzen dituzten kakalardoiei. ●

GIBERRI GAZTA

“GAZTETATIK DITUGU AHUNTZAK, HONETATIK BIZITZEKO APUSTUA EGIN NAHI DUGU ORAIN”



GARAZI ZABALETA



Ubidekoak (Bizkaia) dira Imanol Iturriotz eta Aritz Bengoa gazteak. “Lagunak gara txikitatik, eta beti izan dugu buruan abeltzaintza proiektu bat martxan jartzeko ideia”, azaldu du Iturriotzek. Nekazaritzari lotutako ikasketak izan ez arren, baserri munduarekin eta ganaduarekin harreman estua izan dute txikitatik, baita ahuntzekin ere. Duela urte pare bat amestutako proiektuari ekitea erabaki zuten. Eta, norberak bere aldetik baino, bidea elkarrekin bideragarriagoa eta errazagoa izanen zela sinetsita, Giberrri Gazta egitasmoa abiatu zuten elkarlanean.

AHUNTZAK BIDELAGUN

Lehen sektoreko proiektu bat abiatu nahi zutela argi zuten, baina, zergatik ahuntzak? “Gaztetatik izan ditugu ahuntzak, biok mendi berera botatzen genituen udan, eta ikusita ongi moldatzen ginela animalia horiekin, hortik segitzea pentsatu genuen”, dio. Orain arte azpigorri arrazako ahuntzak izan dituzte, eta hiru hilabete besterik ez zituzten egiten etxean abereek,

kanpoan izaten zituztelako gehienetan. “Esnea batu eta basora bidaltzen genituen bueltan”, azaldu du Iturriotzek. Proiektua abiatzearekin batera, ordea, alpina ahuntzekin hasi dira lanean. Eguraldiak uzten duenean, egunez kanpoan izaten dituzte, belar freskoa jan dezaten, eta gauetan, berriaz, barrura sartzen dituzte, etxeko forraje lehorrarekin elikatzeko.

80 ahuntz dituzte Giberrri Gazta proiektuan, eta aurtengo produkzioa txikia izanen dela aurreikusten dute. “Ekoizpen kopuru txikia izanik, zuzeneko salmenta egingen dugu aurten. Aurrerago, ekoizpena handiagoa denean, ikusiko dugu nola egin, baina zuzenekoari eutsi nahi genioke ahal den neurrian”, dio. Mendian izaten zituzten ahuntzen esnearekin gazta probak egiten aritu dira azken urteetan, eta ongi atera zitzaizkien. Tarte horretan, artzain eskolan ikastaroak egin dituzte, eta Leartikerren asesoramendua ere izan dute. Aurtengoa izanen dute lehenbiziko ekoizpen “handia”, eta ahuntz gazta ondua eta freskoa egingen dituzte.

ETXALDE BERRIA GORBEIAREN MAGALEAN

Proiektua Ubidekoa dela nabarmentzen dute gazteek, nahiz eta lursail batzuk eta ahuntzentzat eraiki duten etxaldea Zigoitian dauden, Araban. “Muga egiten du gure herriak Arabarekin, baina eraiki berri dugun pabiloia Ubideko herritik 400 metro eskasera dago”. Iturriotzen etxetik hurbil, haien lursail batean eraiki duten pabiloia egurrezko eraikuntza da, Ipar Euskal Herriko enpresa batekin eraiki dutena. “Bion lurak batuta, behar genuen hektarea kopuruaren zati handi bat lortu dugu, eta beste lur batzuk alokairuan hartu ditugu”, diote.

Pabiloian bertan eraiki dituzte obra-dorea, kamarak, aldagelak... “Denda ere hortxe bertan jarriko dugu, Gorbeiaiko parke naturalaren atean baitago eraikina, jende asko pasatzen den tokian”, gehitu du. Aste gutxiren buruan ekinen diote gaztak egiteari, eta hilabete gutxira lehen gazta horiek salgai edukitzea espero dute. ●

“ ”

Dantza eszena zuritu edo edukiz hustu dela sentsazio orokorra da

Nagore Tamayo

Azaroan estreinatu zuen bere lehenengo lana Nagore Tamayo dantzariak (Tolosa, 2000): *Nondik abiatu inora* izena du, eta Natalia Belén dantzariarekin batera gorputzu du. Bere herrian egin dugu hitzordua, Zumardi Handian.

 MADDI SARASUA LASKARAI  DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Zergatik du dantzak horrenbesteko garrantzia zure bizitzan?

Intuitiboki, betidanik jarraitu dut dantzari lotuta, gustuz. Baina orain galdetuta, uste dut apropos jarraitzen diodala bide honi, gorputzarekin lantzen den harremanagatik edo dantzarekin gorputza tratatzeko den eragatik. Aurrekoan irakurri nion dantzari bati gizartea uste baino NPC-agoa dela *-Non Playable Character*; bideo-jokoetan usu erabilia den terminoa da, jolasteko erabili ezin daitezkeen pertsonaiak dira-. Bideo-jokoetako pertsonaiak bezala, mugimendu handirik gabeak gara. X edo Y erara mugitzen gara, zeozerengatik, eta horrek konnotazio batzuk dauzka sozialki. “Ohi-ko” gisa sailkatutako mugimenduak egiten ditugu, ez gaude gorputzari konektatuta. Askotan gizarteak mugatu egiten du nola mugitu behar zaren eta nola ez.

NPCaren ideia horrekin, orokorrean, esan nahi da deshumanizazio garai bat

bizi dugula. Horregatik interesatzen zait dantza, gorputza eta mugimendua berromanizatzeko balio duelako. Azken finean, gorputza eta mugimendua buruarekin, sentsazioekin, memoriarekin eta esperientziarekin lotuta dagoen zerbait da. Gorputz guztia konektatuta dago globalki, eta geroz eta garatuago egon haien arteko harremanak, orduan eta osoagoa edo aberatsagoa izango da esperientzia bakoitza. Lengoaia horren aukerak interesatzen zaizkit.

Zer transmititu daiteke dantzaren bidez?

Nire ustez, dantzak batez ere sentsazioak agitatu ditzake. Transmitti dezake mezu argi bat beste diziplina batzuekin harremanak, edo dantza kokatuta oso testuinguru espezifiko batean. Baina ez da euskarri narratibo erabatekoa; horretarako balia daitezke antzerkia edo beste diziplina artistiko batzuk.

Oso interesgarria egiten zait gorputzen arteko harremanek esan dezaketen. Ez da berdina bi pertsonen arteko borroka edo besarkada bat ikustea. Edo bai, zeren derrepente transmititu dezakete halako, edo amankomunean zerbait eduki. Azkenean, ekintza fisikoak dira eta guregan eragina daukate. Gure buruak asoziazioak egiten ditu, eta hortik ere asko dago esateko. Hor kokatzen dut, nik behintzat, dantza: hizkuntza bezala.

Gorputzen arteko harreman horretatik, kontaktu inprobisazioarekiko interesa izan duzu. Zergatik?

Dantza ikasketak egiten ari nintzenean ezagutu nuen teknika hau. Arreta eman zidan, zeren nik txikitatik dantzatu dut pixka bat, nik nire gorputzarekin, eta jendea inguruan dantzan, baina beti ni nire erdigunean. *Kontakt*-en bilatzen dena da pisua partekatzea, elkarrekin





dantza egitea eta besteak eragiten uztea. Ardura bat daukazu beste pertsonarekiko, eta besteak zurekiko ere bai. Teknika horrek baditu ideia batzuk oso nire interesekoak direnak, eta gerora, nire lehenengo proiektua *Nondik abiatu inora* sortzerakoan, ezinbestekoak izan dira.

Harremanaz eta konpromisoaz zer gogoeta eduki dituzue bikotean?

Norbaitekin dantzan ari zaren momentuan inplikazio eta konpromiso bat egon behar da. Natalia Belének eta biok lehenago ez genuen ia kontaktu inprobisaziorik egin, eta esanguratsua izan zen guretzat ikustea nola joan ginen gaitasun horiek garatzen. Proposamenak egiteko beldurrez hasi ginen, bestearengan gehiegizko konfiantza izatearen beldurra, gehiegi inplikatu nahi ez izatea... Baina elkar gehiago ulertuta, ausardia gehiagoz, eraiki ahalko genituela imajinatuko ez genituzkeen gauzak sortu ditugu. Elkarrentzako egoitea zeinen garrantzitsua den gogoetatu dugu. kontaktu inprobisazioan lanean ari zarenean, zure buruaz aparte bestearengan ere pentsatu behar duzu, arretaz jarraitu bere mugimenduak; eta noski, teknika ere hor dago, gorputzarena eta dantzarena, baina zerbait intuitiboa sortzen da: zu baldin bazatoz nire besoetara, eta hartu egin behar bazaitut, nire gorputzak erresolbituko du modu batera edo bestera. Ez baldin badut ere askorik pentsatzen nola nagoen, nola noan, nola jasoko zaitudan, nola egingo dudana... etorriko zara eta egingo dut. Teknikak erreminta izan behar du, eta intuizioak beti egon behar du hor. Askotan hain egoten gara arduratuta gure buruaz, ez garela gai ikusteko kanpoan dagoena edo kanpotik

datorrena. Are, arrisku bat baldin badautor, ez gara gai aurre egiteko, ez baldin bagaude begiara irekita.

Zer irudikatu duzue emanaldian?

Espoiler asko egin gabe kontatuko dizut: hasieran bi pertsona gara eszenarioan, bakoitza nahikotxo bere kabuz mugitzen, begirada oso zabalik eduki gabe eta noraezean bezala. Hemen gaude, "bitzitan gaude", bagoaz, baina ez dakigu oso ondo ez nora eta ez zertarako. Eta proposamena da, pieza aurrera doan heinean, elkarrekin zerbait eraikitzea eta batez ere esploratzea zer egin dezakegun elkarrekin, bakarrik sekula egin izan ezingo genukeena.

Ezegonkortasuna ere landu duzue gorputzen bidez.

Bai, nahi genuelako guretik sortu. Eta esaten genuen: "Gu gara bi neska gazte, belaunaldi berri bat, ez dakigunak oso ondo nolakoa izango den gure etorkizuna, eta ezjakintasun horretatik abiatzen gara, zaurgarritasunetik". Iruditu zitzaigun termino horiek egokiak zirela dantzara eramateko garaian, besteekin harremantzerakoan inportante zirelako. Zu baldin bazaude ezegonkortasunean eta noraezean, zaila da oso bestearekin harreman sendo bat eraikitzea. Orduan, nola abiatu gintezkeen ezegonkortasunetik, elkarrengana gerturatzen hasi, eta, pixkanaka, ezegonkortasun hori elkarrekin desagerrarazi.

Eraikuntza bide horretan zein kezka izan dituzue, eta zein zailtasun?

Maitasun istorio bat ematen zuela esaten ziguten, hori zen askotan jasotzen genuen *feedback*-a, eta horixe gure kezka. Ez genuen hori irudikatu nahi, ez

zen bilatzen genuena, ez genuen hortik sortu. Nahi genuena gehiago zen elkar lagundu nahi duten bi pertsona irudikatzea, elkarrentzat sostengu izan. Ezin al gara konprometitu pertsona batekin bikote afektibo izan gabe? Gure artean askotan komentatzen genuen: zer gertatuko litzateke bi beharrean hamar bagina, horrek zer aukera emango litzekiguke? Jada, ziurrenik, ez ginateke bi, baizik eta talde bat ginateke. Baina hori da amets edo desira bat, oso zaila dena betetzeko, zeren orokorrean, dantza munduan, ez dago baldintzarik hain ekoizpen handiak aurrera eramateko.

Nola ikusten duzu dantza garaikidearen panorama?

Iruditzen zait, eta komentatu izan dugu inguruko dantzari askorekin, gaur egun, beste arlo artistiko askotan bezalaxe, dantzan ere eduki ulerterraz bat eskaintzera bideratzen dela merkatua: azkarra, bisuala, arlo asko ukitu nahi dituen, berritzailea izan. Badaude borondate on eta proposamen interesgarriak aurrera eramaten dituzten artistak, baina orokorrean, dantzan gehiago sakondu beharrean, gauza asko proiektatu nahi izaten dira. Hor badago zerbait oso salmentara bideratua eta gainazalean gelditzen dena.

Gertatu izan zait dantza emanaldi bat ikustera joan eta oso indiferente ateratzea antzokitik. Eta niri horrek amorrua ematen dit. Iruditzen zait derrota bat dela. Dantzak eta oro har arteak bai mugiarazi behar dizula, pentsarazi edo sentiarazi zerbait. Emanaldi bat ez bazait gustatu, ba ez zait gustatu; eta badaikit zergatik ez zaidan gustatu, hau edo bestea sentitu dudalako. Baina nola da posible ezertxo ere ez sentitzea?

Dantza garaikidea XX. mendean sortu zen, transgresio puntu batekin, zerbait erantzuteko arduraz, zerbait ez zelako ari esaten, proposamen batzuk falta zirelako eta dantza ulertzeko, sortzeko edo publikoarekin harremantzeko era bat falta zelako. Egia da oso garai mugituak izan zirela bai sozialki eta bai politikoki, eta horrek, noski, eragina izan zuela artean, artea egiteko momentuan zeuden ezinegonetan, nahietan eta jarreran.

Orain oso garai despolitizatuak bizi ditugu eta dantzan ere nabari da. Sentsazio orokortu bat da dantzaren eszena zuritu edo epeldu dela nolabait, edukiz hustu-edo, batez ere azken hamarkadetan. Panorama, orokorrean, ez bakarrik dantzan, bideratuta dagoelako salgarria izango den produktu bat sortzera. Eta hor, azkenean, gertatzen da artea entretenimendura mugatzen ari dela. Horrek ez du esan nahi ez daudela bestelako proposamen mota batzuk, eskema horretatik ateratzen direnak, baina ez dute bizitza oparo bat, ez baita ohikoa eduki ez hain komertzialak programatzea. Egin behar duzu produktu bat salmenta izan dezakeena. Eta hala ere, dantza proposamen batek ibilbide luze bat izatea ez da batere erraza.

Zein dira gaur egungo sisteman dantzari izatearen zailtasunak?

Gure piezan aipatzen dugun bezala, eze-gonkortasuna oso nabaria da, eta orokorrean derrigortuta gaude autonomo izatera. Oso dantzari gutxi daude nomina bat jasotzen dutenak hilerio. Gehienetan ekoizpenka egiten da lan: produkzio bat egin eta hori saltzen duzu, eta betiere dirulaguntzen menpe. Sormen prozesua aurrera eramateko mugak oso ohikoak dira, besteak beste, lotu behar dituzulako dantzari guztien ordutegiak, tamalez ezin garelako egon proiektu bakar batean lanean. Ohikoa da lan paralelo bat edo gehiago edukitzea, eta horrek antolaketa eta prozesua asko zailtzen du. Edota prozesu batean egoten zara ez dakit zenbat denbora eta gero egiten dituzu agian lau emanaldi. Ez dago aukera handirik bizitza oparo bat emateko sorkuntza bakoitzari.

Tokatzen da boterea daukatenekin, zuzendariekin eta abarrekin harremantzea, eta erakutsi behar izatea jarrera bat gustatuko dena. Adibidez, azkenaldian asko entzuten dudana zerbait da audizio batera joan eta eskatzen zaizula pertsonalitate handia: bilatzen dute pertsona bat "errebeldea", "ahaldundua"...

“ ”

Gehiago sakondu beharrean, gauza asko proiektatu nahi izaten dira; hor badago zerbait oso salmentara bideratua dena

Badirudi egin behar duzula dena. Iritsi eta inguru guztia jan, nabarmendu eta super segurua izan, atentzioa deitu. Gaur egun erokeria iruditzen zaigu balletean eskatzen ziren kanonak eskatzea, argaltasun muturrekoa eta abar; ordea, dantza garaikidean, beste forma batzuen bitartez bada ere, badaude batzuetan halako kanon moderno batzuk, lehiakortasuna eta zenbait estereotipo mantentzen dituztenak. Inor ez dago industriatik salbu.

Gai potoloak dira dantzari bezala gorputzarekiko presioa izatea, istripuak edukitzeko beldurra, zahartzea bera...

Dantzariak ez du baja hartzeko aukerarik, oso zaila da. Hortaz, lesionatu eta ezin dantzatu ahal izatea da eten bat, luzeagoa edo motzagoa, ondorio asko ekarri ahal dizkizuna. Eta aipatzen zenuena, hala da: oholtzan ikusten diren gorputzak, orokorrean, gazteak dira. Asko gertatzen da zahartzen zoazen heinean oholtza utzi eta kanpoan jartzen zarela, gehiago koreografo moduan. Horrek aukera bat gehiago izan beharko luke, ez derrigorki egin behar duzun zerbait, zure gorputza jada ez delako

“ ”

Gertatu izan zait dantza emanaldi bat ikustera joan eta oso indiferente irtetea antzokitik. Nola da posible ezertxo ere ez sentitzea?

erakusgarri edo jendeak goza dezakeen zerbait. Esperientziadun gorputzek, nire ustez, asko daukate esateko.

Nola aldatu beharko liriateke gauzak? Zer beharko litzateke?


Oso zaila egiten zait eszenario ideal bat irudikatzea kapitalismoan bizi garen bitartean. Beti emango dira aipatu ditugun dinamika ugari horiek, eta dantzatik oso gauza konkretu batzuk bilatuko dira, modu batera edo bestera. Hasi gaitzek sektoreko langileok saretzen. Beti daukat sentsazioa bakoitzak asko duela esateko, norbera bere kabuz asko kexatzen dela, baina gero ez dugula komunean jartzen. Eta beste askotan, are gehiago, mehatxu izan daitekeela. Uste dut badagoela alda-ketak ezin gauza daitezkeenaren sinesmena, besteekiko beldurrean mantentzen garelako eta horrek zailtasunak ekartzen dituela alda-ketak eman ahal izateko.

Ezinbestekoa da gure lana egonkortu ahal izateko baldintzak sortu ahal izatea. Oso garrantzitsua da programatzen den dantza ez izatea soilik programatu-kon zaituen instituzioaren gustuen edo interesen araberakoa. Zure sorkuntza prozesuak ez luke egon behar aurrez determinatua, saldua izateko. Arte adierazpen bakoitzak bere lekua izan beharko luke. Eduki beharko genuke artea gure erara egiteko askatasun minimoa, soilik besteentzako sortu ordez.

Dantza programatu behar da. Oso noizean behin eginez gero, jendea nekez etorriko zaizu; geroz eta gehiago programatu eta eskaintza zabalagoa eskainita, jendea gehiago interesatuko litzateke. Jendea ez duzu magikoki aterako tabernatik edo bere etxeko txokotik antzokira joateko, uste dut aukerak eman behar zaizkiola ikusle goi gerturatu dadin. Baina dantzak ez luke izan behar museo-artelan bat bezalakoa, antzokian bakarrik gertatzen dena. Dantzari asko frustratzen gara jendea ez datorrelako dantza ikustera, baina nik uste, askotan guk ere egin beharko genukeela ariketa, antzokitik atera eta jendearengana gerturatzeko. Arteak gizartetik gertu egon behar du. Hala ere, ezin da ukatu artearekiko eta konkretuki dantza garaikidearekiko sentsibilitate, interes eta jakintza oso mugatuak daudela gizartean. Kulturalki, beste adierazpen mota batzuekiko interesa badago. Baina horregatik eman behar dugu guk lehen pausoa, nire ustez, interes hori sorrarazteko eta egiten dugun horretan sinesteko, ez baitu beste inork gugatik egingo. ●



Hitz gezidunak

ALTXTATU UR KIROLA	SALNEURRI APALEKO ITSASONTZIA- REN URPEKO ZATI	BITS ...DE JANEIRO, BRASILGO HIRIA	GALDE PARTIKULA ZAKURRA	OSPAKIZUN, FESTA ERABAT	KATUAREN OIHUA	ZORIGAITZ ABEREEN GORPUTZEKO ORGANO		
SIRIAKO BIZTANLE BAKOITZ- AREN BARNE- RAKO					GORA JOAN PERTSO- NAIAREN ABIZENA			
REQUIESCAT IN PACEM	AUTONOMIA ESTATU BILOBA		 DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA			PREZIPITAZIO EGOKI	ALDE!, OSPAL IRRISTATU	
		PERTSO- NAIAREN IZENA				559 ERROMATAR ZENBAKIZ UGAZTUN HARAGIJALE		
BIZKAIKO IBAIA LOTAN								
	NITROGENOA AURRIZKI: KONTRAKO- TASUNA						ZIRKONIOA ITXURA	ROENTGEN UDARAK
BI KEN BAT MAMUA		ARTSENIKOA HAUR HIZKE- RAN, MUSU	ZIURTAGIRI DIGITALA KATUAREN MIAUA	GARESTI		GAIXO		
				APAIZ KAZETA				
ZIRKULAZIO SEINALE EZKONANAI			AKKRAKO BIZTANLE TONA					
				ZALUTASU- NEZ, LASTER- TASUNEZ				

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	3		7					6
	5			1		9		
		7			9	3		
3	8	1			7			6
7		1	6		3	4	8	
5	4	6	8	2	7	1		
		3	2				8	
					8	6		
	6	4	9	7	1			5

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Janaria birrintzeko hortz.
2. Babesleku.
3. Uztail.
4. Gariaren hautsa.
5. Nolatan.

EBAZPENAK

5	3	2	7	6	4	9	8
6	1	9	8	5	4	3	2
1	9	5	8	4	7	9	6
2	7	3	6	5	8	1	4
4	8	2	7	1	9	3	6
7	9	1	6	5	3	4	8
3	2	8	1	9	4	7	5
6	8	7	5	4	9	3	2
4	5	3	1	6	9	7	8
1	3	9	7	8	2	5	6

I	K	L	U	V	Z	U	V	N	I	O	K
R	V	V	V	K	V	V	O	P	O	S	
E	V	A	B	A	S	M	A	N	T	A	F
	U	A	R	K	A	B	A	T	B	A	
R		Z	R					N		O	L
V	N	E	I	H					V	A	L
X	I	D	L	I					P	R	I
T	U	N	O						A	E	
I		E	U	R	O	K	A	V	A	R	O
R		M	V	A	S	R	I	V	A	R	I
O	G	I	V	O	T	O	P	O	T	O	W
Z	M	J	A	V	A	V	M	J			



Deserosotasunaren apologia

  GORKA INTXAUSTI ARANGUREN

Esperantza. iz. Nahi edo desiratzen dena gertatuko delako edo lortuko delako uste ona.

Izen horixe jarri zion Jokin Azpiazu Carballo *Olor* ermuarrak bere bigarren diskoari, 2022an. Gerora azaldu izan du berak ez duela hain pasibo ulertzen; esperantza zera dela, bere ustez: “Zeozter egitea, jakinda zeozter egiten badugu buelta emango diogula egoerari”. Bada, halako zerbait sinetsita bertaratu gara Bilboko Sarean espazioan After Post kolektiboak antolatutako kontzertura.

Potea eskatu eta harengana hurbildu garenerako hasi du kontzertua, kable eta sintetizadoreen oihanetik. Soinu industrialak perkusio, hitzak beti zorrotz. Olorrek ez dio inori erdibidean gelditzen uzten, alde edo kontra egoteko gonbita da ikuskizuna. Kantuak, kapitalismoaren eta faxismoaren kontrako manifestu. Hitzak

eta musika ez dira, ordea, Olorrek adierazteko duen modu bakarra; ez da geldirik egon bigarren kanta bukatu denetik: orain lurtean etzan, orain publikoaren artean kontaktu bila aritu, orain zure begietatik hamar zentimetrora kanta oso bat kantatu. Performancearen mugimendu ez-serio, ez-estetiko, ez-maskulinoek gogorarazten digute erosotasunak bi alde dituela, eta deserosotasuna jasaten den gisan eragin daitekeela. Alegia, izan daitekeela zauri, arma edo alarma. Eta horretan, *denok gara errudunak, errua ez bada inorena*. Nork bere zama darama.

Aurreko paragrafoaren hasieran hala esan dudan arren, honezkeroko konturatuko zinen ez dela *kontzertu* bat izan. Ez adiera klasikoan, behintzat. Asko izan du performancetik eta probokaziotik. Eta dena, zu eta ni, eta bertaratu diren guztiak- deriba arriskutsuenetatik salbatzeko.

OLOR

NOIZ: martxoaren 9an.

NON: Bilboko Sarean espazioan.

Lagun batek beti esaten dit berak sortzaileak eta proiektuak *sinetsi* egin behar dituela, gustuko izango baditu. Baina hori nola egiten da? Argi dago ez dela guztiz arrazionala. Artista batzuk *entretengarri* zaizkigu eta listo. Baina agertzen diren antzera, desagertu egin ohi dira. Esango nuke pertsonaren egunerokoaren eta proiektuaren artean dagoen distantziak markatzen duela zerbaiten sinesgarritasuna. *Egoaren* eta *alter egoaren* artekoa. Hala, Jokinekin ez daukat zalantza askorik. Olor eta Jokin bat dira. Hainbat proiektutan ezagutu dugu, eta haren ibilbidea apur bat jarraitu duenak badaki parte hartzen duen proiektu bakoitza dela borrokarako tresna berarentzat. Zerbait erre nahi dugunontzat, gasolina. Eta gasolina usaina ez da berehala desagertzen. ●



LIBURUA

Mona Lisaren lapurreta



IHES PLANA

AGUSTÍN FERRER CASAS
ITZULPENA: MIEL A. ELUSTONDO

HARRIET, 2024

XABIER ETXANIZ ERLE


1936ko azaroaren 16an Kondor legioko hegazkinek Madrilgo zenbait museori egin zieten eraso. Eta horixe bera da liburu honetara murgiltzen den irakurleak jasotzen duen lehen informazioa; gertakari horretaz ari den Ledesma arte historialari ospetsuaren hitzaldiaren bidez. Iragana (erasoa) eta oraina (hitzaldia). Eta bi garai horien artean ibiliko gara liburuan. Alde bateatik, eraso horietatik ihesi Madrilgo hainbat eta hainbat obra Valentziara nola eraman ziren, eta testuinguru horretan jazotako lapurreta bat (*Mona Lisa* artelana); eta, bestetik, gaurko garaian margolan horren arrastoa bilatzen ari diren historialari ezaguna eta altxor bilatzaile baten istorioa.

Komikia osatzen duten bi garietako gertakariak badute, bakoitzak bere aldetik, misterioa eta intriga puntua. Alde batetik lapurreta nola burutu zen ikusi ahal izango dugu gerra gordinen daudelarik; eta, bestetik, altxor bilatzaileak nola engainatzen duen ikertzailea margolana aurkitzeko eta, horrela, dituen zorrak kitatzeko. Alde horretatik, irakurlea istorioa irakurtzen jarraitzera sentitzen da bultzatua; gertakari zurrumbiloan harrapatuta amaiera jakin nahian iraganeko istoriotik gaur egunera eta alderantziz saltoka dabilelarik. Nobela grafikoaren argumentuak harrapatzen zaituela, alegia.

Sentimendu edo sentsazio horretan badu zerikusia Miel A. Elustondok eginitako lanak, testuak –itzulpenak– ederki

korritzen du; oso ongi lortua da komikietan itzulpenak izan ohi dituen mugak gaindituz; Ferrer Casasen irudi teknikak ere zerikusia du, lapitzez eginiko irudiak (guardako orrietan ikus daitekeen moduan) akuarelaz daude margotuta eta, azkenik, errotuladorez bukatuta. Irudi errealistak dira, ongi girotuak eta irakurlea gerra garaira edo duela urte batzuetara eramaten dutenak.

Gurean komikia, poliki-poliki, hartzen ari den garrantziaren erakusle dugu *Ihes plana*; 1936ko gerrako gertakari historiko batetik abiatuta misteriozko nobela entretenigarria, historia eta fikzioa nahasten dituen obra baina, batez ere, irakurlea harrapatzen duen lan gomen-dagarria dugu euskaraz argitaratu den Ferrer Casas nafarraren lehen lan hau. ●



MUSIKA

Verde Prato, tropismoa eta Dolce Vita



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA



BIZITZA EZTIA

VERDE PRATO

PLAN B RECORDS, 2024

XALBA RAMIREZ

Ousmane Sembène zinemagile se-negaldar ospetsuari galdetu zioten ea bere pelikulak Europan ulertzen ote ziren. Erantzuna, epikoa: “Izan gaitzen argiak. Europa ez da nire erdigunea. Europa Afrikaren periferia bat da. Nire herrialdean egon dira 100 urtez, eta ez dute inoiz nire hizkuntza hitz egin. Nik hitz egin dut haien hizkuntza. (...) Zergatik erori behar naiz tropismoan? Zer nahi duzu, eguzki-lore bat izatea, eguzkiaren arabera biraka? Ni neu naiz eguzkia!”

Afrozentrisimo hori interesgarria iruditu zait bat-batean pentsatzeko euskal eszenan. Ez al gara aritu urteak eta urteak (eta arituko gara urteak eta urteak) euskal sorkuntza bideratuz soilik Euskal Herriara? Geure zentroak ez du Europarekin zer ikusirik; hau da, ez Espainiarekin, ez Frantziarekin. Eta euskarazko sormenak zentzua izan duela –izan badu–, geure zazpi herrialdeen barruan.

Horregatik akaso, gure poeta handiena ez da sekula itzulia izan erdaretara. Axola al zaigu ea ulertuko ote den Artze gaztelera? Alberto Lizarralde gogoeta egin zuen euskal musikak izandako zabalkundeaz: “Ez da egokia izan euskal musika soilik euskaldunoi interesatuko zaigula pentsatzea. Hemendik atera behar dugu, ahalik eta gehien atera behar gara”.

Katakrakek argitaratu berri duen Stuart Hallen liburuan, Ibai Atutxa itzultzaileak galdetzen du ea nola hitz egin duen Marxe euskaraz, corpusaren koherentzia faltaz ari denean. Marxe euskaraz hitz egitea garrantzitsua da, euskaraz ari garenean, unibertsalak izateko gaitasuna izateko.

Saltsa hau guztia esateko Ana Arsuagak, zarata askorik egin gabe, bere erdigunea aldatu duela, eta, itxuraz, txikia zen musika, iristen ari dela Euskal Herritik harago. Donny Donnato ekoizle

italiarrarekin atera du *Dolce Vita* italiarrari omenaldi bat, xume-xumea, ezti-eztia. Itsasoan bainatzea da Verde Prato entzutea. Baina ez Kontxako hondartzan, frantsesez eta gipuzkoarrez josita; Nautikoan, Tximistarrin edo Ilurgitan baizik. Gizartetik urrun.

Diskoa oharkabean pasatzen da, alaitasunaren eta malenkoliaren artean dantzatzen. *Solita*-n berreskuratzen du reggaeton minimalista, *Loria* kantantza ahotsak loopeatuta, Verde Praton hasiera-hasierako proposamenera itzultzen da. Bizitza ezta da atximur goxoena.

Verde Prato berriz ageri zaigu presarik gabe, pisurik gabe. Desiratutako bizitzan ez dagoelako arrabotsik, dena da amatezko materialarekin egina. *Dolce Vita* eta *Cinema Paradisok* bat egiten dute eta gonbidapena luzatuz: “Hartu gurea dena / ederrena / eztena / hartu bizitza”. Baina galdera da: zein da eguzkia orain? ●

Erromatik soldadu eske

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Manifa jendetsua joan den asteburuan Erroman, europar izatearen harrotasuna aldarrikatzen. 50.000 lagun, dio parean dudan kronikak; eta ez du ezkututzen parte hartzaile gehienak senior kategoriakoak izan direnik, baina, oro har, gauzaren arrakasta azpimarratu nahi duela sumatzen diot. Beste artikulu batean ñabardura gehiago: Piazza del Popolo ondo betetzeko adinakoa izan dela, baina han bildutako jendea eramanez gero Erroman mobilizazio handiak bukatu izan diren beste plaza handixeagoren batera, agian aterkiren batzuk irekita bete beharko zituztela argazkiak ezinbestean erakutsiko zituen alopezia-sintomak.

Edukia ere, egia esan, halakoxea zen. Bale, *europride* asko. Europa hitza pila batetan errepikatu dutela dirudi, kroniketan aipatzen zuten bakoitzean txupito bat edan baitut –kazetaritzako ikasleok, ez probatu hau entregatu behar dituzuen lanetan; edo zer arraio, bai, proba ezazue: Adimen Artifizialarekin eginda baino ho-

betu geratuko zaizkizue behintzat-, eta gero saiatu dira Europa, txupito, Europa, txupito, Europa, txupito, horiek denak artikulatzen demokraziarekin, jendearen sentimenduekin eta beste zenbait kontzeptu gaseosorekin.

Manifestazioetara erregulariki joateko ohitura duenak parte hartuko ez lukeen manifestazio horietako bat izan dela, alegia. Irradiatzen duen pentsamendu ahul horri erreparatzen badiogu ordea, beharbada, agian, akaso, asuntuaren irismena ulertzera iritsiko gara: *establishment* europarraren marka daraman lehen mobilizazio jendetsua izan da Donald Trump AEBetako tronura iritsi denetik. Berandu baino lehen, klase ertainei zuzendutako mezuak emititzen hasi nahi du kontinente zaharreko kontserbadurismo sozial-liberalak. Laster ikusiko ditugu tankera horretako ekimenak gertuago ere.

Bruselaizeak urduri baitatoz azkenaldian, ageriko adierazpenengatik noski, baina ez gutxiago *think tank* usamerikarrek isilxeago esku artean darabiltzaten

tramak direla medio: *DeSmog* hedabideak zabaldu duenez, Heritage fundazioa martxoaren 11n bildu zen Europar Batasunaren egiturak nola desegin eztabaizatzeko. Susan Georgek mota horretako txiringitoei buruz idatzitako *Hijacking America* (Amerika bahitzen) irakurtzea gomendagarria da une honetan, jabetzeko Trump abiadura bizian hartzen ari den erabakietako asko ez direla planifikazio luze eta ondo pentsatutakoen azken emaitzak besterik –AEBetako abortu-eskubidea bermatzeko gakoa zen *Roe v. Wade* epaia bertan behera uztea, adibidez, hamarkada batzuk lehenagotik zeukaten agendan eta 2022an lortu zuten-.

Antonio Scurati idazleak ere hitz egin zuen Erromako zera horretan, portzierto. Eta baieztatu dit obra eta pertsona bereiztea ariketa sana dela, nik jarraitu nahi baitut irakurtzen Mussoliniri buruz idazten ari den saga, tipoak une honetan hartu duen *si vis pacem, para bellum* jarrerak eragiten didan biguina gorabehera.

Gainera, tiroak nondik etorriko diren ulertzeko mami handixeagoko gauzak esan zituen bere homologo espainiar Javier Cercasek baino –ez zen zaila, egia esan-, hitzaldian bertan, baina batez ere aurreko egunean *La Repubblica* egunkarian publikatutako artikuluan. Scuratik dio asko hitz egiten ari dela industria militar europarra indartzeaz eta ez hainbeste, aldiz, gerrak behar duen beste osagaiaz: soldaduak. Eta niri behintzat, argi samar geratu zait ondo-rengo aste eta hilabeteetan, gutxienez derrigorrezko soldaduskaren premiari buruzko propaganda asko irenstekoak garena. Boris Vianen *Desertorea* entzun bitartean jasoko ditut berri horiek, Koldo Izagirrek euskaratutako hitzekin, IbonRG-ren ahotsean. ●






egonarrria

Lurrari entzuten dion saioa

Pilpilean diren gaiez elkarrizketak, **Eli Pagolak** gidatuta platoan.

Laborarien esperientziak, **Mattin Jauregik** jasoak landatik.

Bi astean behin asteazkenetan argia.eus-en eta plataforma guztietan

 ARGIA.eus/podcast

Martxoak 5

Garai kontserbak

baserri-lantegian egon gara, Ana de la Mazarekin

Martxoak 19

Euskal Herriko banana, mango eta marakuiak probatu nahi?

Igor Letek ekoizten ditu

Apirilak 2

Ezkurra, jaki antikapitalista nola bildu eta prestatu

Asier Bastarrikaren eskutik

Apirilak 16

Baserrietako erremintak

aztertu ditu Aran Sagarzazuk

Apirilak 30

Artaldean sartu gara, artaziak eskuan

Joseba Attard moztaillearekin

Maiatzak 14

Argindarren kablei jarraika

Alvaro Camposekin



Bizi Baratzea

Lurrari begiratzen diogunon **Orria**

Badator urtaro bakoitzean
zabalduko den aldizkari berria.

Lur gaiak jorratzen jarraituko
dugu *zuri esker*
eginbizibaratzea.eus

Formatu
berezia

Lehen alean
posterra
polinizazioaz

Martxoaren
30ean lehen alea
ARGIarekin edo
Bizi Baratzekoa
eginda